



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

c60800e4a27c4e4ea5ae8a1be9c26c3a7f432bb90ab871b2df6e7bc22239aa63

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2024KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2024.05.30

Tolosako Udaletxean, 2024ko maiatzaren hogeita hamarrean, 18.30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)

Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)

Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)

Josune Sanz Vidal(EH BILDU)

Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)

Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)

Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)

Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)

Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)

Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)

Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Ez bertaratua:

Xabier Balerdi Tolosa(EAJ-PNV)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hauek onartzea:

2024ko apirilaren 29ko ohiko osoko bilkurakoa.

2024ko maiatzaren 13ko aparteko eta ezohiko osoko bilkurakoa.



2. Ezestea Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak Lanpostuen zerrendaren aurka tartekaturiko helegitea.
3. Onartzea lanaldi partziala duten langileen norbere gaietarako lizentzien hitzarmen osagarria.
4. Onartzea Tolosako txistulari Bandaren lan hitzarmen osagarria.
5. Onartzea Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea eta lizitazioari hasiera ematea.
6. Hasierako onespina ematea 5/2024 Kreditu aldaketarako espedienteari, kreditu gehiegarrien modalitatean.
7. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.
8. Onartzea prezio publiko batzuen aldaketa.
9. Onartzea prezio publiko berriak sortzea.
10. Hasierako onarpena ematea 2024ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 1-2024 proposamenari.
11. Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoaren aldaketaren hasierako onespinen ondotik aurkeztutako bi alegazioak erantzutea, jasotako txosten sektorialak aztertzea eta aldaketa hori behin betiko onspina ematea.
12. OARC/KEAO-K emandako ebazpenaren ondorioz, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketarako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa bertan behera uztea.
13. 2024/02 kreditu aldaketaren berri ematea, kreditu txertaketan modalitatekoa.
14. 2024/04 kreditu aldaketaren berri ematea, kreditu gahikuntzaren modalitatekoa.
15. Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.
16. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAUEK ONARTZEA:

2024KO APIRILAREN 29KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu eta bertaratu diren zinegotzien zerrenda oker dago. Izan ere, Leire Zubeldia Rezola ez bertaratu azaltzen da eta osoko bilkura honetan parte hartu zuen. Zuzenketa egin ondoren, udalbatzarkideek aho batez onartu dute akta.

2024KO MAIATZAREN 13KO APARTEKO ETA EZOHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. EZESTE A EUSKADIKO BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAK LANPOSTUEN ZERRENDAREN AURKA TARTEKATURIKO HELEGITEA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

Lehena.- 2024ko urtarrilaren 25eko Tolosako Udaleko Ohiko Osoko Bilkuran 2024ko Lanpostuen zerrendaren hasierako onarpena eman zen. Ondoren, 2024ko otsailaren 20ko 36. zenbakidun GAOn argitaratu zen, akordioa 15 lanegunetan jendaurrean jarriz.

Bigarrena.- 2024ko martxoaren 7an Euskadiko Biologoek elkargo ofizialak, udaleko erregistroan, Ingurumena, jasangarritasuna eta landa-eremuko teknikari lanpostura sartzeko beharrezko tituluetan Biologiako Gradua onartzea eskatu du.

Hirugarrena.- 2024ko apirilaren 22an 77 zenbakidun GAOn akats zuzenketa argitaratu da, Lanpostuen zerrenda onartuz, behin behinekoa lanpostuen zerrenda onartu beharrean.

Laugarrena.- Ondorioz, Euskadiko Biologoek elkargo ofizialaren alegazioa, berraztertze errekurtsotzat jotzen da, eta horrela aztertuko da, urriaren 1eko, Administrazio Publikoek Administrazio Prozedura Erkidea erregulatzen duen 39/2015 Legeko 115.2. artikulua dionaren baitan “errekurtso-jartzaileak okerreko kalifikazioa edo kalifikaziorik ez izatea ez da oztopo izango errekurtsua izapidetzeko, betiere errekurtsuaren benetako izaera ondorioztatzen bada”.

KONTUAN HARTURIK

Lehena.- Apirilaren 18ko Toki-arabidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 167.1. artikulua ondorengo xedatzen du:

“Artículo 167.

1. Los funcionarios de carrera de la Administración local que no tengan habilitación de carácter nacional se integrarán en las escalas de **Administración General y Administración Especial** de cada Corporación, que quedarán agrupadas conforme a lo dispuesto en la legislación básica del Estado sobre función pública, en los grupos que éste determine, de acuerdo con la **titulación exigida para su ingreso.**”

Bigarrena.- Ondoren, 170.1. artikuluan ondorengo zehazten da:



“Artículo 170

1. Tendrán la consideración de funcionarios de **Administración Especial** los que tengan atribuido el **desempeño de las funciones que constituyen el objeto peculiar de una carrera, profesión, arte u oficio.**”

Hirugarrena.- Lanpostuaren funtzioak ondorengoak dira:

Erantzukizun orokorrak:

Ingurumen Sailaren kudeaketa egitea.

Lan esanguratsuenak:

LANDA-EREMUA ETA INGURUMENA:

1. Lurzoru urbanizaezineko nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektuen espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.
2. Landa-eremuetako azpiegiturak eta bideak mantentzeko eta hobetzeko lanen beharra proposatzea, eta haien kontrola eta ikuskapena egitea.
3. Landa-eremuko bideen erabilera bereziko espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.
4. Lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko eskaera-espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.
5. Hirigintzako kontsultei, jardueri, katastroari, auzo-bideei eta abarri buruzko irizpen teknikoa ematea.
6. Lurzoru urbanizaezinean zehapen-espedienteak instruitzea.
7. Bere eskumeneko espedienteen gainean ikuskapenak eta txosten teknikoak egitea.
8. Hondakinak zuzen kudeatzen direla zaintzea, eta mankomunitatearen lana ikuskatu eta koordinatzea.
9. Hirigintzako plan eta proiektuetan behar diren ingurumen-txostenak idaztea.
10. Ingurumenaren gainean hezkuntza eta sentsibilizaziorako udal-kanpainak, -proiektuak eta -ekimenak zuzendu eta planifikatzea.
11. Udal-ingurumenaren kalitatea kontrolatzeko ekintzak egitea.
12. Txostenak egitea, landa-auzoetarako dirulaguntzak eskatzeko.

UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

13. Bere funtzio-eremuko espedienteetan proposamen teknikoen orriak egitea, eta balioespen-txostenak egitea horietan oinarritutako lizitazioetan.
14. Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuez arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela bermatzea, eta horien ondoriozko fakturak egitea.
15. Unitatearen urteko aurrekontu-proposamena egitea, eta haren jarraipena egitea, exekuzioa kudeatuta.
16. Teknikari gisa parte hartzea, horretarako eskatuz gero, eta bere eskumeneko arloei dagokienez, udal informazio-batzordeetan.
17. Sailen arduradunen aldi behingo bileretan parte hartzea.



EGINKIZUN KOMUNAK:

18. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
19. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
20. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
21. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
22. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
23. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Laugarrena.- Tolosako Udalak aurreikusten du Ingurumena, jasangarritasuna eta landa-eremuko teknikariak landa-eremuan egin beharreko lanak direla eta, beharrezkoa duela ingurumen zientzietan, baso ingeniaritzan, nekazaritzako ingeniaritzan edo parekatuan graduatua izatea.

Bosgarrena.- Urriaren 30eko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 37.2.a) artikuluan ondorengoa xedatzen da:

“2. Quedan **excluidas de la obligatoriedad de la negociación**, las materias siguientes:

a) Las decisiones de las Administraciones Públicas que afecten a sus **potestades de organización**.

Cuando las consecuencias de las decisiones de las Administraciones Públicas que afecten a sus potestades de organización tengan repercusión sobre condiciones de trabajo de los funcionarios públicos contempladas en el apartado anterior, procederá la negociación de dichas condiciones con las organizaciones sindicales a que se refiere este Estatuto.”

Horiek horrela, Udalak lanpostua betetzeko beharrezkoa den titulazioa erabakitzeko ahalmena du.

PROZEDURA

Prozedurari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.i) artikulua baitan, lanpostuen zerrendaren onarpena udalbatzari dagokio.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak,



2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Euskadiko Biologoek elkargo ofizialak egin duen eskaera ezeztea.

Bigarrena.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du ezestea Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak Lanpostuen zerrendaren aurka tartekaturiko helegitea.

3. ONARTZEA LANALDI PARTZIALA DUTEN LANGILEEN NORBERE GAIETARAKO LIZENTZIEN HITZARMEN OSAGARRIA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

Lehena.- Tolosako udalean lanaldi partziala duten udal langileak, norbere gaietarako lizentzi egunak hartzeko modua arautzeko proposamen bat luzatu du ordezkariak sindikalak.

Bigarrena.- Horiek horrela, langileen ordezkariak norbere gaietarako lizentziak



hartzeko hitzarmen osagarri bat egitea proposatu du. Horretarako, hainbat dokumentu aurkeztu dituzte proposamen gisa eta honekin, testu proposamen bat egin da. Testu proposamen hau 2024ko maiatzaren 14an egindako negoziazio mahaian aztertu zen eta udal gobernu eta ordezkari sindikalen arteko adostasuna egon zen.

KONTUAN HARTURIK

Lehena.- Tolosako udalak bere lan hitzarmenean, norbere arazoetarako lizentzi egunak arautuak ditu. Udal hitzarmenak honelaxe dio:

“60. artikulua.- Norberaren arazoetarako lizentzia egunak.

1. Norberaren arazoetarako, urteko lan-ordutegiko lau eguneko lizentzia, edo kopuru horri lanordutan dagokiona, hartzeko aukera dago, eta gerora berreskuratu daitezkeen beste bi egun ere hartu ahal izango dira.

2009. urtean, urteko lan-ordutegiko 5 eguneko lizentzia, edo kopuru horri lanordutan dagokiona, hartzeko aukera egongo da, eta gerora berreskuratu daitezkeen beste bi egun ere hartu ahal izango dira.

2010. urtetik aurrera, berriz, urteko lan-ordutegiko 6 eguneko lizentzia, edo kopuru horri lanordutan dagokiona, hartzeko aukera egongo da, eta gerora berreskuratu daitezkeen beste bi egun ere hartu ahal izango dira.

Lizentzia honek, Udalhitz hitzarmenean jasotako gainerako lizentzia, baimen eta lan-baldintzek barne hartzen dituzte Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.1.k) artikulua norberaren zereginetarako aurreikusitako sei lizentzia-egunak. Horrela, urte bakoitzean norberaren zereginetarako hartu daitezkeen egunak ez dira hitzarmen honetan jasotakoak baino gehiago izango, eta egun horiek inolaz ere ez dira metatuko erakunde batean lehenago onartutakoekin. Beraz, norberaren zereginetarako egunen edo antzeko eragina duten bestelako egunen guztizko kopurua hitzarmen honetan jasotakoa izango da, hitzarmenak gai horretan aplikagarri diren aurreko baldintzak bereganatzen eta konpentsatzen baititu.

2. Norberaren arazoetarako eta famili arazoak konpontzeko, bi egun zatitzeko aukera izango du funtzionarioak, baina zati horiek gutxienez bi ordutakoak eta gehienez ordu erdikoak izan beharko dute.

3. Horiek hartu baino gutxienez 15 egun lehenago egin beharko da eskaera, eta Saileko Arduradunak baimena eman beharko du, zerbitzua behar bezala eskaintzen dela ziurtatzeko helburuarekin.

4. Enplegatu publikoek seigarren hiru urtekoa betetzea bi egun gehiago gozatzeko eskubidea izango dute, zortzigarrenaz geroztik betetako hiru urteko bakoitzeko egun bat gehiago gehituz.”

Bigarrena.- Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuko, III. Titulua, negoziazio kolektiboa eta

ESKU166e8d37-ed0f-48d2-93dc-ff06c33c0c13



hitzarmen kolektiboak erregulatzeko dituen.

“Artículo 82. Concepto y eficacia.

1. Los convenios colectivos, como resultado de la negociación desarrollada por los representantes de los trabajadores y de los empresarios, constituyen la expresión del acuerdo libremente adoptado por ellos en virtud de su autonomía colectiva.

2. **Mediante los convenios colectivos**, y en su ámbito correspondiente, los **trabajadores y empresarios regulan las condiciones de trabajo y de productividad**. Igualmente podrán regular la paz laboral a través de las obligaciones que se pacten.

3. Los convenios colectivos regulados por esta ley obligan a todos los empresarios y trabajadores incluidos dentro de su ámbito de aplicación y durante todo el tiempo de su vigencia.

Sin perjuicio de lo anterior, cuando concurren causas económicas, técnicas, organizativas o de producción, por acuerdo entre la empresa y los representantes de los trabajadores legitimados para negociar un convenio colectivo conforme a lo previsto en el artículo 87.1, se podrá proceder, previo desarrollo de un periodo de consultas en los términos del artículo 41.4, a inaplicar en la empresa las condiciones de trabajo previstas en el convenio colectivo aplicable, sea este de sector o de empresa, que afecten a las **siguientes materias**:

a) Jornada de trabajo.

b) Horario y distribución del tiempo de trabajo.

c) Régimen de trabajo a turnos.

d) Sistema de remuneración y cuantía salarial.

e) Sistema de trabajo y rendimiento.

f) Funciones, cuando excedan de los límites que para la movilidad funcional prevé el artículo 39.

g) Mejoras voluntarias de la acción protectora de la Seguridad Social.

Se entiende que concurren causas económicas cuando de los resultados de la empresa se desprenda una situación económica negativa, en casos tales como la existencia de pérdidas actuales o previstas, o la disminución persistente de su nivel de ingresos ordinarios o ventas. En todo caso, se entenderá que la disminución es persistente si durante dos trimestres consecutivos el nivel de ingresos ordinarios o ventas de cada trimestre es inferior al registrado en el mismo trimestre del año anterior.

Se entiende que concurren causas técnicas cuando se produzcan cambios, entre otros, en el ámbito de los medios o instrumentos de producción; causas organizativas cuando se produzcan cambios, entre otros, en el ámbito de los sistemas y métodos de trabajo del personal o en el modo de organizar la producción, y causas productivas cuando se produzcan cambios, entre otros, en la demanda de los productos o servicios que la empresa pretende colocar en el



mercado.

La intervención como interlocutores ante la dirección de la empresa en el procedimiento de consultas corresponderá a los sujetos indicados en el artículo 41.4, en el orden y condiciones señalados en el mismo.

Cuando el periodo de consultas finalice con acuerdo se presumirá que concurren las causas justificativas a que alude el párrafo segundo, y solo podrá ser impugnado ante la jurisdicción social por la existencia de fraude, dolo, coacción o abuso de derecho en su conclusión. El **acuerdo deberá determinar con exactitud las nuevas condiciones de trabajo aplicables en la empresa y su duración**, que no podrá prolongarse más allá del momento en que resulte aplicable un nuevo convenio en dicha empresa. El acuerdo de inaplicación no podrá dar lugar al incumplimiento de las obligaciones establecidas en convenio relativas a la eliminación de las discriminaciones por razones de género o de las que estuvieran previstas, en su caso, en el plan de igualdad aplicable en la empresa. Asimismo, el acuerdo deberá ser notificado a la comisión paritaria del convenio colectivo.

En caso de desacuerdo durante el periodo de consultas cualquiera de las partes podrá someter la discrepancia a la comisión del convenio, que dispondrá de un plazo máximo de siete días para pronunciarse, a contar desde que la discrepancia le fuera planteada. Cuando no se hubiera solicitado la intervención de la comisión o esta no hubiera alcanzado un acuerdo, las partes deberán recurrir a los procedimientos que se hayan establecido en los acuerdos interprofesionales de ámbito estatal o autonómico, previstos en el artículo 83, para solventar de manera efectiva las discrepancias surgidas en la negociación de los acuerdos a que se refiere este apartado, incluido el compromiso previo de someter las discrepancias a un arbitraje vinculante, en cuyo caso el laudo arbitral tendrá la misma eficacia que los acuerdos en periodo de consultas y solo será recurrible conforme al procedimiento y en base a los motivos establecidos en el artículo 91.

Cuando el periodo de consultas finalice sin acuerdo y no fueran aplicables los procedimientos a los que se refiere el párrafo anterior o estos no hubieran solucionado la discrepancia, cualquiera de las partes podrá someter la solución de la misma a la Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos cuando la inaplicación de las condiciones de trabajo afectase a centros de trabajo de la empresa situados en el territorio de más de una comunidad autónoma, o a los órganos correspondientes de las comunidades autónomas en los demás casos. La decisión de estos órganos, que podrá ser adoptada en su propio seno o por un árbitro designado al efecto por ellos mismos con las debidas garantías para asegurar su imparcialidad, habrá de dictarse en plazo no superior a veinticinco días a contar desde la fecha del sometimiento del conflicto ante dichos órganos. Tal decisión tendrá la eficacia de los acuerdos alcanzados en periodo de consultas y solo será recurrible conforme al procedimiento y en base a los motivos establecidos en el artículo 91.

El resultado de los procedimientos a que se refieren los párrafos anteriores que



haya finalizado con la inaplicación de condiciones de trabajo deberá ser comunicado a la autoridad laboral a los solos efectos de depósito.

4. El convenio colectivo que sucede a uno anterior puede disponer sobre los derechos reconocidos en aquel. En dicho supuesto se aplicará, íntegramente, lo regulado en el nuevo convenio.”

Hirugarrena.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 37. artikulua, zeinen bidez negoziatu beharreko gaiak zerrendatzen diren.

37.1 artikulua m) atalean xedaturikoaren arabera, lan egutegi, lanaldi eta ordutegiak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, hitzarmen kolektibo hau ordezkari sindikalekin negoziatu behar da. Negoziazio hau 2024ko maiatzaren 14ean negoziatu zen eta udal gobernu eta ordezkari sindikalen arteko adostasuna egon zen.

Laugarrena.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 q) artikulua arabera, Udaltzako eskuduntza du gai hau onartzeko. Bestalde, Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 38.3 artikulua baitan, organo eskudunak onartu beharko du eta kasu honetan Udaltzako eskuduntza hori.

Bosgarrena.- Prozedura

Lizentzi ordu hauetaz gozatzeko, saileko arduradunak (musika eskolako kasuan, zuzendariak) baimendu beharko du eskaera, zerbitzuan izango duen eragina kontuan izan ondoren. Musika eskolako irakasleen kasuan, hartu daitekeen egun edo ordu kopuru osoaren erdiak bakarrik hartu ahal izango dira egun lektiboetan. Gainontzeko egun/orduak, ordu ez lektiboetan hartu beharko dira.

Ordu hauen erabilpena gauzatzeko, Giza Baliabide saila eta musika eskolako eta txistulari bandako zuzendariaren artean lanaldi partzialen urteko egoera koadroa prestatuko dute, langile bakoitzak duen lanaldia eta gozatzeko duen ordu kopurua zehaztuaz.

Urte hasieran, langile bakoitzak taula horretan ageri den ordu kopurua izango du erabilgarri (aurrez, abenduan, langile bakoitzari hiru urtekoengatik dagozkion orduak eguneratu ondoren, musika eskolako eta txistulari bandako zuzendariak Giza Baliabide sailera taula eguneratua bidaliko dute).

Orduen eskaera egiterakoan, erabiliko den ordu kopurua zehaztu beharko du langileak, bere ordu poltsatik kentzeko.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:



Aldeko bozkak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Lanaldi partziala duten langileen norbere gaietarako lizentzi egunak hartzeko hitzarmen osagarria onartzea, honako edukiarekin:

“ Zatikako lanaldia duten langileen kasuan, honakoa izango da egun horien kopurua eta zatikatze aukera:

1- Zatikako lanaldia izan eta lanera astelehenetik ostiralera egunero datozen, eta egunero lan ordu kopuru bera duten langileen kasuan, sei egun (eta horietatik bi zatitzeko aukera) izango dituzte (hirurtekoengatik dagozkien egunak aparte), eta hartzen duten egun bakoitzeko, baimen egun oso bat erabiliko da (zatitutako egunetan izan ezik).

2- Zatikako lanaldia izan, eta asteko egunetan lan ordu banaketa ezberdina duten langileen kasuan, edo astean zehar bost egun baina gutxiagotan lanera datozen langileen kasuan, lanaldiaren portzentaiaren arabera ordu kopurua izango dute. Lanaldi osoaren kasuan 42 ordu liratekeela kontuan hartuta, horren arabera kalkulua egingo da.

Kasu honetan, lizentzia eguna hartzen den egunean lan egingo lituzkeen ordu kopurua erabiliko du langileak bere ordu poltsatik. Hala ere, gehienez zortzi egunetan banatuta hartu ahal izango du erabilgarri duen ordu kopurua, eta zortzi egun gozatu ondoren, duen ordu kopuru osoa erabili gabe balego, ordu horiek galdu egingo lirateke.

Lizentzi egun bat hartzerakoan, lan egunaren zati bat bakarrik hartzekotan, gutxienez bi ordu hartu beharko dira.

Aldiz, hirurtekoengatik gehitzen diren lizentzia egunek aurrekoen funtzionamendu bera izango dute ordu proportzioari dagokionez, baina ezingo modu zatikatuan hartu.

Prozedura

Lizentzi ordu hauetaz gozatzeko, saileko arduradunak (musika eskolako kasuan, zuzendariak) baimendu beharko du eskaera, zerbitzuan izango duen eragina kontuan izan ondoren. Musika eskolako irakasleen kasuan, hartu daitekeen egun edo ordu kopuru osoaren erdiak bakarrik hartu ahal izango dira egun lektiboetan. Gainontzeko egunak/orduak, egun ez lektiboetan hartu beharko dira.

Ordu hauen erabilpena gauzatzeko, Giza Baliabide saila eta musika eskolako eta



txistulari bandako zuzendariaren artean lanaldi partzialen urteko egoera koadroa prestatuko dute, langile bakoitzak duen lanaldia eta gozatzeko duen ordu kopurua zehaztuaz.

Urte hasieran, langile bakoitzak taula horretan ageri den ordu kopurua izango du erabilgarri (aurrez, abenduan, langile bakoitzari hiru urtekoengatik dagozkion orduak eguneratu ondoren, musika eskolako eta txistulari bandako zuzendariak Giza Baliabide sailera taula eguneratua bidaliko dute).

Orduen eskaera egiterakoan, erabiliko den ordu kopurua zehaztu beharko du langileak, bere ordu poltsatik kentzeko. “

Bigarrena.- Hitzarmen Osagarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik indarrean sartzea.

Hirugarrena.- Akordioaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko Iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du lanaldi partziala duten langileen norbere gaietarako lizentzien hitzarmen osagarria.

4. ONARTZEA TOLOSAKO TXISTULARI BANDAREN LAN HITZARMEN OSAGARRIA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

Lehena.- Tolosako udal txistulari bandak, bere funtzionamenduan eta urteko egutegian dituen berezitasunak kontuan hartuta, lan hitzarmen osagarri baten bidez, bere lan baldintzak zehazteko proposamen bat egin du.



Bigarrena.- 2008ko urriaren 10ean onartu zen Tolosako Udaleko lan baldintzak erregulatzen dituen Udalhitz hitzarmena baina bertan ez dago atal bereizturik txistularien berezitasunak aurreikusten dituen lan baldintzen erregulazioa arautzen duena, horregatik beren egutegi eta lan baldintzak arautzeko proposamen bat egin da.

Hirugarrena.- Horiek horrela, langileen ordezkariak txistularien lan baldintzak erregulatzeko hitzarmen osagarri bat egitea proposatu du. Horretarako, bi dokumentu aurkeztu dituzte proposamen gisa eta biek testu proposamen bateratu bat egin da. Testu bateratu hau bi negoziazio mahaitan aztertu da. Lehenengo, udal txistularien ordu ez presentzialei buruzko funtzionamendua negoziatu zen 2024ko apirilaren 29an, eta ondoren, txistulari bandaren funtzionamendu orokorrerako baldintzak negoziatu ziren 2024ko maiatzaren 14ean, txistularien hitzarmen osagarriarekin. Bi bileretan udal gobernu eta ordezkari sindikalen arteko adostasuna egon zen.

KONTUAN HARTURIK

- Tolosako udalak 2008ko urriaren 10ean onartutako UDALHITZ hitzarmena, zeinen bidez Tolosako udaleko langileen lan-baldintzak erregulatzen diren.
- Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuko, III. Titulua, negoziazio kolektiboa eta hitzarmen kolektiboak erregulatzen dituen.

“Artículo 82. Concepto y eficacia.

1. Los convenios colectivos, como resultado de la negociación desarrollada por los representantes de los trabajadores y de los empresarios, constituyen la expresión del acuerdo libremente adoptado por ellos en virtud de su autonomía colectiva.

*2. Mediante los convenios colectivos, y en su ámbito correspondiente, los **trabajadores y empresarios regulan las condiciones de trabajo y de productividad.** Igualmente podrán regular la paz laboral a través de las obligaciones que se pacten.*

3. Los convenios colectivos regulados por esta ley obligan a todos los empresarios y trabajadores incluidos dentro de su ámbito de aplicación y durante todo el tiempo de su vigencia.

*Sin perjuicio de lo anterior, cuando concurren causas económicas, técnicas, organizativas o de producción, por acuerdo entre la empresa y los representantes de los trabajadores legitimados para negociar un convenio colectivo conforme a lo previsto en el artículo 87.1, se podrá proceder, previo desarrollo de un periodo de consultas en los términos del artículo 41.4, a inaplicar en la empresa las condiciones de trabajo previstas en el convenio colectivo aplicable, sea este de sector o de empresa, que afecten a las **siguientes materias:***

a) Jornada de trabajo.

b) Horario y distribución del tiempo de trabajo.



- c) **Régimen de trabajo a turnos.**
- d) **Sistema de remuneración y cuantía salarial.**
- e) **Sistema de trabajo y rendimiento.**
- f) **Funciones**, cuando excedan de los límites que para la movilidad funcional prevé el artículo 39.
- g) **Mejoras voluntarias de la acción protectora de la Seguridad Social.**

Se entiende que concurren causas económicas cuando de los resultados de la empresa se desprenda una situación económica negativa, en casos tales como la existencia de pérdidas actuales o previstas, o la disminución persistente de su nivel de ingresos ordinarios o ventas. En todo caso, se entenderá que la disminución es persistente si durante dos trimestres consecutivos el nivel de ingresos ordinarios o ventas de cada trimestre es inferior al registrado en el mismo trimestre del año anterior.

Se entiende que concurren causas técnicas cuando se produzcan cambios, entre otros, en el ámbito de los medios o instrumentos de producción; causas organizativas cuando se produzcan cambios, entre otros, en el ámbito de los sistemas y métodos de trabajo del personal o en el modo de organizar la producción, y causas productivas cuando se produzcan cambios, entre otros, en la demanda de los productos o servicios que la empresa pretende colocar en el mercado.

La intervención como interlocutores ante la dirección de la empresa en el procedimiento de consultas corresponderá a los sujetos indicados en el artículo 41.4, en el orden y condiciones señalados en el mismo.

*Cuando el periodo de consultas finalice con acuerdo se presumirá que concurren las causas justificativas a que alude el párrafo segundo, y solo podrá ser impugnado ante la jurisdicción social por la existencia de fraude, dolo, coacción o abuso de derecho en su conclusión. **El acuerdo deberá determinar con exactitud las nuevas condiciones de trabajo aplicables en la empresa y su duración**, que no podrá prolongarse más allá del momento en que resulte aplicable un nuevo convenio en dicha empresa. El acuerdo de inaplicación no podrá dar lugar al incumplimiento de las obligaciones establecidas en convenio relativas a la eliminación de las discriminaciones por razones de género o de las que estuvieran previstas, en su caso, en el plan de igualdad aplicable en la empresa. Asimismo, el acuerdo deberá ser notificado a la comisión paritaria del convenio colectivo.*

En caso de desacuerdo durante el periodo de consultas cualquiera de las partes podrá someter la discrepancia a la comisión del convenio, que dispondrá de un plazo máximo de siete días para pronunciarse, a contar desde que la discrepancia le fuera planteada. Cuando no se hubiera solicitado la intervención de la comisión o esta no hubiera alcanzado un acuerdo, las partes deberán recurrir a los procedimientos que se hayan establecido en los acuerdos interprofesionales de ámbito estatal o autonómico, previstos en el artículo 83, para solventar de manera efectiva las discrepancias surgidas en la negociación de los acuerdos a que se refiere este apartado, incluido el compromiso previo de someter las discrepancias a un arbitraje vinculante, en cuyo caso el laudo arbitral tendrá la misma eficacia que los acuerdos en periodo de consultas y solo será recurrible conforme al procedimiento y en base a los motivos establecidos en el artículo 91.

Cuando el periodo de consultas finalice sin acuerdo y no fueran aplicables los procedimientos a los que se refiere el párrafo anterior o estos no hubieran solucionado la discrepancia, cualquiera de las partes podrá someter la solución de la misma a la Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos cuando la inaplicación de las condiciones de trabajo afectase a centros de trabajo de la empresa situados en el territorio de más de una comunidad autónoma, o a los órganos correspondientes de las comunidades autónomas en los demás casos. La decisión de estos órganos, que podrá ser adoptada en su propio seno o por un árbitro designado al efecto por ellos mismos con las debidas garantías para asegurar su imparcialidad, habrá de dictarse en plazo no superior a veinticinco días a contar desde la fecha del sometimiento del conflicto ante dichos órganos. Tal decisión tendrá la eficacia de los acuerdos alcanzados en periodo de consultas y solo será recurrible conforme al procedimiento y en base a los motivos establecidos en el artículo 91.

El resultado de los procedimientos a que se refieren los párrafos anteriores que haya finalizado con la



inaplicación de condiciones de trabajo deberá ser comunicado a la autoridad laboral a los solos efectos de depósito.

4. El convenio colectivo que sucede a uno anterior puede disponer sobre los derechos reconocidos en aquel. En dicho supuesto se aplicará, íntegramente, lo regulado en el nuevo convenio.”

- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 37. artikulua, zeinen bidez negoziatu beharreko gaiak zerrendatzen diren.

37.1 artikulua m) atalean xedaturikoaren arabera, lan egutegi, lanaldi eta ordutegiak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, hitzarmen kolektibo hau ordezkari sindikalekin negoziatu behar da. Negoziazio hau 2024ko apirilaren 29an eta 2024ko maiatzaren 14ean negoziatu zen. Bi bileretan udal gobernu eta ordezkari sindikalen arteko adostasuna egon zen.

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 q) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko. Bestalde, Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 38.3 artikulua baitan, organo eskudunak onartu beharko du eta kasu honetan Udalbatzak du eskuduntza hori.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkek: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Udal txistulari Bandaren lan hitzarmen osagarria onartzea, honako edukiarekin:

“**Lehena.-** Txistulari bandaren langile kopurua eta barne antolaketa

Txistulari Banda sei partaidez osatua dago, zuzendari bat eta bost txistulari, azken hauetatik bi perkusio zereginetara esleituak daudenak.

Urteko lan egutegia antolatzen, hiru taldetan banatzen dira sei partaideak, A, B eta C taldeak; modu honetan, lau partaidek jotzen duten emanaldietan eta talde batek jai



egiten du. Lan egutegian, emanaldia dagoen egunean agertzen den hizkiak egiten du jai egun horretan.

Bigarrena.- Lan egutegia osatzeko irizpideak

Txistulari bandako bost partaideek %16ko lanaldia daukate (zuzendariak % 48 lanaldia du). Txistulari Bandako langileen urteko ordu kopurua modu honetan banatzen da:

- Urteko lan ordu kopurua: 254,72
- Urteko lan ordu presentzialak: 189,12
- Urteko lan ordu ez-presentzialak: 65,6

Lan ordu presentzialen barnean, honako eginkizun hauek daude definituak:

- Entseguak
- Igande eta zenbait jaiegunetako dianak
- Lanegunetako zortzikoak (Korpus bezpera)
- Urtean zehar egiten diren kontzertu eta prozesioak (Korpus)
- Iñauterietako betebeharrak
- San Juanetako betebeharrak
- Errege bezperako kabalgata
- Larunbat eguerdi batzuetan egiten diren kale animazio ekintzak
- Bi urtetik behin egiten den txistulari kontzertu berezia
- Urtean zehar sortzen diren protokolo ekitaldiak

Entseguak irailaren 15etik aurrera, abenduaren 22 arte egiten dira, eta urtarrilaren 7tik aurrera, ekainaren 22 arte, Aste santuko bi asteetan entsegurik ez da egongo.

Hirugarrena.- Jardueren orduak zenbatzeko era

Txistulari Bandaren lanaren ezaugarriak kontuan hartuz, aipaturiko eginkizun horietako bakoitzari (entseguei izan ezik), aurrez adosturiko gutxieneko ordu balio bat emango zaio, jardueraren iraupen erreala laburragoa den kasuetan:

- Dianak: ordu terdi.
Urtean zehar, alde zaharrea zortzikoak jo ondoren, astero auzo ezberdin batean kalejira bat egiten da. Dianaren ondoren kontzertua edo prozesioa dagoenean, alde zaharreko zortzikoak bakarrik jotzen da. Baita uztailean eta irailean, eta abenduaren 24tik urtarrilaren 6 arte (biak barne) ere.
- Diana eta kontzertua dauden igandeak: 5 ordu (diana 1,5 eta kontzertua 3,5). Diana eta kontzertua dagoen igandeetan, diana eta kontzertua jotzen dituen txistulariari bost ordu zenbatuko zaizkio. Aldiz, goizean diana ez baina ondoren kontzertua jotzen duenari, hiru ordu terdi.
- Iñauterietako: 12 ordu. Iñauterietako zereginengatik, guztira 12 ordu zenbatuko dira. Gaur egun, hauek dira zeregin horiek:
 - Ostegun gizona: txupinazoaren aurretik zortzikoak.



- Zaldunita: goizean diana, arratsaldean idiarena eta zezenak.
- Asteartita: goizean alborada, arratsaldean idiarena eta zezenak.
- San Juanak: 22 ordu. San Juanetako zereginengatik, guztira 22 ordu zenbatuko dira. Gaur egun, hauek dira zeregin horiek:
 - San Juan bezperan antzinako erronda bidea, eta bezperetako protokolo ekitaldia iluntzean.
 - San Juan egunean, goizeko zinegotzi deia, diana, prozesioa, kontzertua, arratsaldeko protokoloa eta soka dantza.
- Errege bezperako kabalgata: 2 ordu.
- Kale animazioak: 2 ordu.
- Txistulari kontzertu berezia: 20 ordu (urte bakoitzean 10 ordu). Bi urtetik behin, txistulari kontzertu berezia egiten denez, lan egutegian urtero 10 ordu zenbatuko dira, urtero oreka bat mantendu dadin.
- Protokoloak: Bakoitza ordu terdi gutxienez, guztira urtean 6 ordu daude.

Halaber, hainbat kasu berezietan honako aldaketak eman daitezke eguneko lan ordutegia zenbatzerako garian:

- Neguan, hotz handia denean (bost gradutik behera), alde zaharreko zortzikoa bakarrik joko da.
- Euria ari duenean, alde zaharreko zortzikoa hiru aterpetan jotzen da, eta auzoetako kalejira ere, horretarako aproposak izan daitezkeen auzoetako aterpeetan joko da.

Laugarrena.- Lan txanda aldaketa eta emanaldi aldaketak

Txistularien artean jai egun aldaketa bat egiteko, txistulari bandako zuzendariari jakinaraziko dio udal langileak, eta zuzendariak, Giza Baliabide sailari jakinaraziko dio.

Txistulari bandaren emanaldi baten data aldaketa bat egiteko, edo lan egutegian ageri den emanaldi baten ordeztu beste bat egiteko, Kultur, gaztedi eta Festetako departamentu buruarekin adostuko da aldaketa hori, eta ondoren Giza Baliabide sailari jakinaraziko dio txistulari bandako zuzendariak.

Bosgarrena.- Txistularien arteko ordezkapenak

Ez-ohiko edo salbuespeneko kasuetan, txistulari bandako partaide bat bapatean gaixo jartzen denean, emanaldi batean jo ezin duenean, eta ordezkorik ez dagoenean, zuzendariak egun horretan jai daukan partaide bati jotzea proposatuko dio. Egoera hori normalean dianetan gertatuko da, beste emanaldietan normalean partaide guztiak parte hartzen dutelako. Jai eguna izaten dela kontuan izanda, egun horretan jai duen txistulariak joko balu, ordu bakoitzagatik bi orduko konpentsazioa jasoko du. Diana baten kasuan, gutxienerako ordu balioa ordu terdikoa denez, gutxienerako konpentsazioa hiru ordukoa izango litzateke. Ordu hauen konpentsazioa zerbitzuan eraginik ez duten egunetan emango da, entsegetarako orduetatik adibidez.



Seigarrena.- Lan ordu ez presentzialen erabilera eta justifikazioa arauak

Bigarren puntuan aipatu den bezala, txistulari bandako langileak urteko 65,6 ordu izango dituzte modu ez presentzian bere lan jardunean. Honela, txistularien lan orduak bi multzotan sailkatuko dira: alde batetik, talde lanerako orduak (entseguak eta emanaldiak barnebiltzen dituena), eta bestetik, bakarkako lanerako orduak.

Azken hauek, ez presentzialak alegia, profesionaltasuna mantendu eta hobetzeko, bakarkako ikasketa burutzeko, eta zuzendariak proposaturiko bestelako zereginak burutzeko izango dira eta modu ez presentzian egin ahal izango dira lantokitik kanpo. Hala ere, langileak ordu horiek lantokian bertan egin nahiko balitu, udalak horretarako espazio egokia jartzeko betebeharra izango du.

Laburbilduz, ordu ez presentzialak modu honetan arautzen dira:

- 1. Ordu ez presentzialen xedea:** Profesionaltasuna mantendu eta hobetzea, bakarkako ikasketa burutzea, eta zuzendariak proposaturiko bestelako zereginak burutzea.
- 2. Ordu ez presentzial kopurua:** Urteko lan ordu guztien %25,75 izango da ez presentziala. Beraz, txistularien kasuan urtean 65,6 ordu izango dira ez presentzialak, eta zuzendariaren kasuan 196,8 ordu izango dira ez presentzialak.
- 3. Ordu ez presentzialak egiteko lekua:** lantokian egiteko derrigortasunik ez da egongo, norberak bere kabuz aukeratzen duen tokian egin ahal izango ditu. Hala ere, txistulari bandako partaideren batek ordu horiek lantokian egin nahiko balitu, udalak horretarako leku egokia jarri beharko du Gorosabel eraikinean (egun musika eskolako txistu gela).
1 0800.211.01.330.00 2024	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.KULTURAKO ADMI	8.000,00	8.000,00	16.000,00
1 0800.211.01.332.10 2024	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.LIBURUTEGIA	7.000,00	8.500,00	15.500,00
1 0900.211.01.323.10 2024	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.HAUR ESKOLA	10.000,00	35.000,00	45.000,00
1 0900.211.01.326.10 2024	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.E.P.A-H.H.I.	4.000,00	3.500,00	7.500,00
1 1400.211.01.231.61 2024	EDIFIZIOEN MANTENUA. EMAKUMEEN ETXEA	5.000,00	3.000,00	8.000,00
1 0700.213.01.153.40 2024	GARRAIO MATERIALAREN MANTENTZE-LANAK.ZE	15.000,00	15.000,00	30.000,00
1 0300.220.02.920.00 2024	LIBURUAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA	15.000,00	7.000,00	22.000,00
1 0800.220.02.332.10 2024	LIBURUAK. LIBURUTEGIA	23.000,00	3.580,00	26.580,00
1 0800.221.99.333.00 2024	BESTELAKO HORNIDURAK. ARAMBURU JAUREGIA	3.800,00	10.000,00	13.800,00
1 0800.221.99.333.10 2024	BESTELAKO HORNIDURAK. LEIDOR	11.200,00	4.000,00	15.200,00

ESKU166e8d37-ed0f-48d2-93dc-ff06c33c0c13



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1100.226.03.419.01 2024	PUBLIZITATEA. ELIKER ZENTROA	0,00	20.000,00	20.000,00
1 1100.226.03.431.10 2024	PUBLIZITATEA. FERIA ETA AZOKAK	90.000,00	30.000,00	120.000,00
1 1200.226.03.920.40 2024	PUBLIZITATEA. KOMUNITATEA ETA GOBERNANTZ	155.700,00	17.000,00	172.700,00
1 0800.226.06.326.20 2024	JARD.SOZIO KULTURALAK.MUSIKA ESKOLA	10.200,00	10.000,00	20.200,00
1 0800.226.06.332.10 2024	JARD.SOZIO KULTURALAK.LIBURUTEGIA	8.300,00	4.500,00	12.800,00
1 0800.226.06.334.10 2024	JARD.SOZIO KULTURALAK KULTURAREN SUSTAPE	221.500,00	26.500,00	248.000,00
1 0800.226.06.338.00 2024	JARD.SOZIO KULTURALAK. JAIK	451.400,00	42.000,00	493.400,00
1 0900.226.99.335.10 2024	HAINBAT GASTU. EUSKARA	17.500,00	10.000,00	27.500,00
1 1300.226.99.162.20 2024	BESTE HAINBAT GASTU. HONDAKINEN KUDEAKETA	15.000,00	5.000,00	20.000,00
1 1400.226.99.231.61 2024	BESTE HAINBAT GASTU. EMAKUMEEN ETXEA	4.000,00	700,00	4.700,00
1 0600.227.07.151.10 2024	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK.HIRIGINTZA	50.000,00	30.000,00	80.000,00



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0700.227.07.171.00 2024	AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK.PARKE ETA L	650.000,00	15.000,00	665.000,00
1 0800.227.07.338.00 2024	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK JAIK	0,00	15.000,00	15.000,00
1 1400.227.07.231.61 2024	ESTUDIOAK ETA LAN TEKNIKOAK. EMAKUMEEN E	30.500,00	13.000,00	43.500,00
1 0200.361.01.931.00 2024	BERANDUTZA INTERESAK	1.000,00	8.000,00	9.000,00
1 1100.471.01.431.00 2024	DIRULAGUNTZAMERKATARI TZA LOKALAREN ALO	86.000,00	75.000,00	161.000,00
1 1000.481.04.341.00 2024	DIRULAGUNTZA KIROLAK. IGERIKETA KANPAINA	16.000,00	15.000,00	31.000,00
1 1100.481.10.431.10 2024	DIRUALGUNTZA FERIAK ETA AZOKAK. BABARRUN	5.000,00	5.000,00	10.000,00
1 0800.481.17.334.10 2024	DIRULAGUNTZA KULTURAREN SUSTAPENA. ERRAL	35.900,00	9.050,00	44.950,00
1 0700.600.01.153.20 2024	INBERTSIOAK LURRETAN. BIDE PUBLIKOAK	3.000,00	14.000,00	17.000,00
1 0700.601.01.153.20 2024	ERABILERA OROKORRERAKO URBANIZAZIOAK.BID	975.000,00	145.000,00	1.120.000,00
1 0700.601.01.171.00 2024	AZPIEGITURA ETA URBANIZAZIOAK. PARKE ETA	220.000,00	15.000,00	235.000,00
1 0700.622.02.920.31 2024	ZERBITZUEN FUNTZIONAMEND ERAIKINAK.	1.206.000,00	225.000,00	1.431.000,00

ESKU166e8d37-ed0f-48d2-93dc-ff06c33c0c13



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0700.623.05.165.00 2024	MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK.ARGITERIA	115.000,00	40.000,00	155.000,00
1 0700.625.01.920.31 2024	ZENBAIT ERAIKINETAKO ALTZARIAK	10.000,00	11.000,00	21.000,00
1 0700.629.01.153.20 2024	BESTELAKO INBERTSIOAK. BIDE PUBLIKOAK	80.000,00	20.000,00	100.000,00
1 0300.644.01.920.20 2024	APLIKAZIO INFORMATIKOAK	0,00	15.600,00	15.600,00
1 0600.680.01.151.10 2024	LURRAK ETA ONDASUN NATURALAK	0,00	290.000,00	290.000,00
1 0500.480.01.231.40 2024	DIRULAGUNTZA GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZ	288.556,89	21.443,11	310.000,00
1 0700.629.01.920.31 2024	BESTELAKO INBERTSIOAK. ERAIKIN PUBLIKOAK	237.000,00	18.000,00	255.000,00
1 0700.623.06.160.00 2024	ESTOLDERIAKO INSTALAZIOAK	0,00	35.000,00	35.000,00
11000.481.10.341.002024	TOLOSA C.F. DIRULAGUNTZA	105.000,00	50.000,00	155.000,00
	GUZTIRA	5.308.556,89	1.405.873,11	6.714.430,00



Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2024	ALTXORTEGIKO GERAKINA	1.405.873,11
FINANTZAKETA GUZTIRA			1.405.873,11

KONTUAN HARTURIK

Kontuhartzaile akzidentalak egindako txostena. Bertan, adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauaren 34.3. artikulua arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu da, Tolosa C.F. dirulaguntzari dagokion kreditu aldaketa erantsita.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldako bozkek: Kristina Pelaez Errazkin, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Onartzea Tolosa C.F. dirulaguntzari dagokion kreditu aldaketa aurkezturiko irizpenari eranstea.

BIGARRENA.- Hasierako onarpenera ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 5/2024 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:



KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntza
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	393.780,00
3	FINANTZA GASTUAK	8.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	175.493,11
6	INBERTSIO ERREALAK	828.600,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		1.405.873,11

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	1.405.873,11
GUZTIRA		1.405.873,11

HIRUGARRENA.-Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles



Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasieraz onartu du 5/2024 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehiagarrien modalitatekoa.

7. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

2024an jarraian zehazten diren fakturak jaso dira eta 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietako faktura data dute, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2024	2021 eta 2022	GIPUZKOAKO URAK AGUAS DE GIPUZKOA, S.A.	2024ko 17.fakturen zerrenda (*)	Ura	595,45 €
2024/04/09	2023/01/01	AINARA AZPIAZU ADURIZ	420	Tolosako Irakurle kluba urtarrila. Elgeta	170,00 €

(*) Uraren fakturak asko direnez, fakturen zerrenda batean sartu dira. 2024OZZZ0036 espedientean dago ikusgai aipatutako zerrenda.

Aipatutako fakturek dagokion sailaren oniritzia jaso dute.

KONTUAN HARTURIK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin.

Aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2023ko abenduaren 31an goran aipatutako fakturei dagozkien obligazioak onartu gabe zeuden eta 2024ko aurrekontutik onartuko dira.



Faktura horiek onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu da.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko bozkak: Kristina Pelaez Errazkin, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Itxitako ekitaldiko faktura hauek onartzea:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2024	2021 eta 2022	GIPUZKOAKO URAK AGUAS DE GIPUZKOA, S.A.	2024ko 17.faktu- ren zerren- da	Ura	595,45 €
2024/04/09	2023/01/01	AINARA AZPIAZU ADURIZ	420	Tolosako Irakurle kluba urtarrila. Elgeta	170,00 €

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu dituzte itxitako ekitaldiko fakturak.



8. ONARTZEA PREZIO PUBLIKO BATZUEN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“LEHENA.- 1989ko irailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak prezio publikoen ordenantza onartu zuela eta 2023ko apirilaren 27an, Ohiko Osoko Bilkurak, 2023-2024 ikasturteko prezio publikoen aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- Kultura, Jaiak eta Gazteria sailak prezio publikoen ondorengo eranskinak aldatzea proposatu dituztela:

- **3.1.8. Euskaltegia**

Lehena.- Egungo Ordenantza Fiskaletan, bost ikastaro aurreikusten dira, ordu kopuruaren arabera: 344, 274, 206, 170 eta 190. Proposatzen da ordu kopuruaren arabera prezio horiek kentzea eta soilik ordukako prezioa uztea. Moldaketa horiekin euskaltegiak aukera handiagoa izango luke premiaren arabera ikastaroen iraupenean egokitzapenak egiteko.

Matrikularen prezioaz gain, materialaren prezioa ere ageri da Ordenantza Fiskaletan. Euskara departamentuaren proposamenean oinarrituz, kontuan hartu behar da euskaltegian digitalizatzen ari dela jarduna eta, beraz, ez dagoela ordain urte batzuetako material gasturik (fotokopiak eta abar). Hortaz, proposatzen da materialaren kontzeptua kentzea, eta material gastu bat aurreikustea matrikula prezioan.

Hori horrela izanik, hau proposatzen da: aurrez aurreko taldeetan 1,35 euro izatea orduko prezioa eta autoikaskuntzan, aldiz, 2,42 euro orduko.

Bigarrena.- Azken urteetan martxan jarri dira jardun biko ereduak duten ikastaldeak: erdia aurrez aurre, erdia autoikaskuntza gisa. Kasu hauetan, jardun biko ordu



bakoitzaren prezioa 1,89 euro litzateke.

Hirugarrena.- Azken urteotan, ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Planean aurreikusitakoari erantzunez, martxan jarri dira migratzaileekin lotutako ikastaro bereziak; batetik Peñascal fundazioan ostalaritzako oinarrizko lanbide heziketan ari diren ikasleei ematen zaie euskara-eskola, bestetik, Inmakulada ikastolan, zaintzako ikasketan egiten ari diren ikasleei. Kasu guztietan ikasle migratzaileak dira, eta egoera zaurgarrian daude.

Kontuan hartu behar da ikastaro horien estrategikotasuna. Batetik, hizkuntza politikaren ikuspegitik, iristeko nekeza den publikoa da, eta hizkuntza giltzarri duten lanpostuetarako trebatzen ari dira (ostalaritza eta zaintza); eta bestetik, ikastaro horiek harrera funtzio garrantzitsua betetzen dute. HABEk onartua du AISA programa, etorkinak euskarara hurbiltzeko harrera ikastaroa eta programa horren barruan ematen dira Peñascal fundazioko eta Inmakulada ikastolako saioak.

Horregatik, Euskara Departamenduaren proposamena da aplikazio arauetan ondorengoa eranstea: "AISA etorkinak euskara hurbiltzeko harrera ikastaroen barruko ikasleek ez dute prezio publikoa ordainduko."

Laugarrena.- Enpresek egin izan dituzte eskaerak beren langileei berriazko ikastaroak emateko; alegia, euskaltegiko ohiko taldeetan txertatuta daudenez aparte, enpresaren egoitzan egitea saio espezifikoak, bakoitzaren beharretara egokituta. Kasu honetan, orduko 71 euro kobratzea proposatzen da.

Saioa enpresaren egoitzan ematekotan, garraio gasua eta joan etorrian emandako irakaslearen denbora kontuan hartuz, kilometroko 1,60 euro kobratzea proposatzen da.

Bosgarrena.- Azkenik, ordainketa epeak aldatzea proposatzen da. Gaur egun honela dago:

"3.1 Ikaslea Tolosan erroldatuta badago matrikula egin baino 15 egun lehenago gutxienez:

3.1.1 Ikasturte arrunta bi epetan ordainduko da:

Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen: Aurrez aurreko eskoletan ikasleek matrikularen % 25 (B2 arte), % 50 (C1) edo % 75 (C2) ordaindu beharko dute. Autoikaskuntzaren kasuan, prezio publikoaren % 25 ordaindu behar da (1. kuota).



Bigarren epea: ekainaren 30a baino lehen, falta den portzentaia (2. kuota).

3.2 Ikaslea Tolosan erroldatuta ez badago:

3.2.1. Ikasturte arrunta bi eratara ordaindu ahal izango da:

a) Epe bakarrean: matrikula osoa eta, hala badagokio, materiala, eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

b) Bi epetan:

Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, matrikularen 2 heren eta, hala badagokio, materiala.

Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, matrikularen azken herena.

3.2.2. Autoikaskuntzako ikastaroa bi eratara ordaindu ahal izango da:

Epe bakarrean: prezio publiko osoa eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

Hiru epetan:

Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, prezio publikoaren erdia.

Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, prezio publikoaren laurdena.

Hirugarren epea: urtarrilaren 15a baino lehen, prezio publikoaren azken laurdena.”

Honela jartzea proposatzen da:

“Ikasturtea bi epetan ordainduko da:

Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen: matrikularen % 5 (B2 arte), % 25 (C1) edo % 50 (C2) ordaindu beharko dute.

Bigarren epea: ekainaren 30a baino lehen, falta den portzentaia (2. kuota).”

• **3.1.6. Musika Eskola**

Lehena.- 2 artikulua dio:

“Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan, edo berritze automatikoarekin, sortuko da.

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da. Behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak UDATEn, dagokion formularioa bete eta kontraktorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, ekainaren 23aren aurretik. Hala egiten ez badu, udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.

Matrikulatzeko, beharrezkoa izango da aurreko ikasturteetako kuota guztiak



ordainduta edukitzea.”

Hori aldatzea proposatzen da, eta honela geratuko litzateke:

“Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan edo berritzearekin sortuko da.

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da.

Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, ekainaren 20a baino lehenago. Hala egiten ez badu, Udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.

Matrikula egiteko nahitaezkoa da Tolosako udalarekin zorrik ez izatea.”

Bigarrena.- Ordainketa epeak aldatzea proposatzen da:

- Ikasle berriak, 1. kuota: azaroaren 1etik 15era
- 2. kuota: abenduaren 1etik 15era

Honela geratuko litzateke 3. artikulua:

“3. ORDAINKETA.

Matrikularen zenbateko osoa hiru alditan ordainduko da:

- a) Aurreko urteetako ikasleak, %60 matrikula egiteko unean, edo berritzearekin batera, uztailean. (1. kuota)

Ikasle berriak eta bakanteen zain dauden ikasleak, aldiz, azaroaren 1etik 15era.

- b) %20 abenduaren 1etik 15era (2. kuota)

- c) %20 otsailaren 15etik 28ra (3. kuota)

...

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epeak:

- 1. kuotaren itzulpena ikasturtea hasi aurretik eskatu beharko da.
- 2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera: urriaren 15a eta urtarrilaren 15a”



Hirugarrena.- Gaur egun egoera ekonomikoarengatik prezio murrizketa dago, baina baldintzetako bat Tolosan erroldatuta egotea da. Baldintza hori kentzea proposatzen da.

Laugarrena.- Taularen barruan dagoen testua egokitzea proposatzen da. Gaur egun horrela dago:

	MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA	SERVICIO ESCUELA DE MUSICA
A)	Musika Eskola	Escuela de Música
	1. zikloa (harrera)	1º ciclo (contacto)
	2. zikloa (hasiera)	2º ciclo (iniciación)
	2. zikloa b*	2º ciclo b*
	3. zikloa (gotortzea)	3º ciclo (afianzamiento)
	3. zikloa b*	3º ciclo b*
	4. zikloa (lehenetasunezko jarduera)	4º ciclo. (actividad preferente)
	a) Musika taldea	a) conjunto musical
	b) instrumentua + musika taldea	b) instrumento + c. musical
	Ikasle erreforzatuak	Alumnos reforzados
	Ikasgai teorikoak	Asignaturas teóricas
	Bigarren instrumentua	Segundo instrumento

B* ikasketak gaindituta ditunentza/ para los que ya han superado los estudios

Honela jartzea proposatzen da:



	MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA	SERVICIO ESCUELA DE MUSICA
A)	Musika Eskola	Escuela de Música
	1. zikloa	1º ciclo
	2. zikloa	2º ciclo
	2. zikloa b*	2º ciclo b*
	3. zikloa	3º ciclo
	3. zikloa b*	3º ciclo b*
	4. zikloa a) musika taldea	4º ciclo. a) conjunto musical
	4. zikloa b) instrumentua + m. taldea	4º ciclo. b) instrumento + c. musical
	Ikasle erreforzatuak	Alumnado con refuerzo
	Ikasgai teorikoak	Asignaturas teóricas
	Bigarren instrumentua	Segundo instrumento

B* ikasketak gaituztenentzat/ para los que ya han superado los estudios

• **3.1.7. Kultur tailerrak**

Lehena.- Taulan “ez ohiko ikastaroak” sartzea proposatzen da: 4 euro/orduko.

Ez ohiko ikastaroetan, ikastaroa hasi eta hurrungo 15 egunetan kobratuko da.

Bigarrena.- 5.1 artikuluan, ordainketa epeak azaltzen dira. Hauek aldatzea proposatzen da.

Orain arte:



“5.1.- Ikasturte osoa (urritik ekainera)

Tarifa osoa matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin. Ordainketa epemuga: abenduaren 11a.

Tarifa osoa bi zatitan:

*1. kuota matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin: %50.
Ordainketa epemuga: abenduaren 11a.*

2. kuota: %50. Ordainketa epemuga: urtarrilaren 15a.

5.2.- Urritik abendura: Tarifa osoaren %50. Ordainketa epemuga: abenduaren 11a.

5.3.- Urtarrietik ekainera: Tarifa osoaren %75. Ordainketa epemuga: martxoaren 11a.

5.4.- Martxotik ekainera: Tarifa osoaren %50”. Ordainketa epemuga: maiatzaren 10a.”

Honela aldatzea proposatzen da:

“5.1.- Ikasturte osoa (urritik ekainera)

Tarifa osoa bi zatitan:

*1. kuota matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin: %50.
Ordainketa epemuga: azaroaren 15tik 30era.*

2. kuota: %50. Ordainketa epemuga: otsailaren 15tik 28ra.

5.2.- Urtarrietik ekainera: Tarifa osoaren %75. Ordainketa epemuga: otsailaren 15tik 28ra.

5.3.- Martxotik ekainera: Tarifa osoaren %50”. Ordainketa epemuga: maiatzaren 15etik 30era”

Hirugarrena.- 3. artikulua dio:

“ Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da. Matrikula egiteko nahitaezkoa da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.”

Honela aldatzea proposatzen da:

“ Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da.

Matrikula egiteko nahitaezkoa da Tolosako udalarekin zorrik ez izatea.”

Laugarrena.- Gaur egun ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epea, beti ere hainbat baldintza betetzen badituzte eta %20a ordaintzen badute, abenduaren 15a da. Epe hau urtarrilaren 15era luzatzea



proposatzen da.

Bosgarrena.- Gaur egun egoera ekonomikoarengatik prezio murrizketa dago, baina baldintzetako bat Tolosan erroldatuta egotea da. Baldintza hori kentzea proposatzen da.

HIRUGARRENA.- Garapen ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azoka sailak prezio publikoen ondorengo eranskina aldatzea proposatu duela:

- **3.1.3. Azoka bereziak**

Gaur egun, 3.1.3. eranskinean “Haragiaren otordua” erregulatzen da. Tolosako Udaleko Garapen ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak Sailak eranskin hau aldatzea proposatzen du. “Haragiaren otordua” izan beharrean, “Azoka bereziak” izango litzateke:

Azoka Bereziak:

- 1.- Azoka berezietan jan-edanen prezio publikoa ordaindu behar da dagokion otorduaren edota ekimenaren baitan.
- 2.- Prezio publiko horien sortzapena txartela erosten den momentuan bertan gertatzen da.
- 3.- Dagokion zenbaketakoa ez da inondik inora itzuliko.

Pintxoak	2 €
Dastaketak	8 €
Ura: botila txikia	2 €
Ura: botila handia	3 €



Sagardoa: txotxa	2 €
Sagardoa: botila	7 €
Ardoa: kopa	2 €
Ardoa: botila	10 €

LAUGARRENA.- 2024ko martxoko urte arteko KPIa%3,25 izan dela (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa).”

KONTUAN HARTURIK

- Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru araearen honakoa xedatzen da:

Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumenerako zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

- *Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak.*
 - *Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.*
- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.



Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu du ondorengo aldaketekin.

- Musika eskolan eta kultur tailerretan ondorengo baldintza kentzea: matrikula egiteko nahitaezkoa da Tolosako udalarekin zorrik ez izatea.
- Prezio publikoenigoerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- Ordenantza honetako gainerako aldaketak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.artikuluari xedatutakoarekin bat etorrira, hasierako onarpena jaso ondoren Ordenantza hau jendaurrean jarriko da ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Prezio publikoen 3.1.8 eranskina (Euskaltegia) aldatzea:

- a) Aurrez aurreko taldeetan 1,35 euro izatea orduko prezioa
- b) Autoikaskuntzan: 2,42 euro orduko.
- c) Jardun biko ordu bakoitzaren prezioa 1,89 euro
- d) Artikulu hau onartzea: "AISA etorkinak euskara hurbiltzeko harrera ikastaroen barruko ikasleek ez dute prezio publikoa ordainduko."



- e) Enpresei eskainitako ikastaroak: 71 euro orduko eta 1,60 euro kilometroko
- f) Ordainketa epeak aldatzea: *“Ikasturtea bi epetan ordainduko da:*

Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen: matrikularen % 5 (B2 arte), % 25 (C1) edo % 50 (C2) ordaindu beharko dute.

Bigarren epea: ekainaren 30a baino lehen, falta den portzentajea (2. kuota).”

BIGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.6 eranskina (Musika Eskola) aldatzea:

- a) 2. Artikulua aldatzea: *“Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan edo berritzearekin sortuko da.*

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da.

Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, ekainaren 20a baino lehenago. Hala egiten ez badu, Udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.”

- b) Ordainketa epeak aldatzea: -
Ikasle berriak, 1. kuota: azaroaren 1tik 15era
Ikasle guztiek 2. kuota: abenduaren 1tik 15era
- c) Egoera ekonomikoarengatik dagoen prezio murrizketan, Tolosa erroldatuta egotearen baldintza kentzea.
- d) Taularen barruko testua aldatzea.
- e) Prezio publikoak % 3,25 igotzea.

MUSIKA ESKOLA	SERVICIO ESCUELA	2024-2025	2024-2025
---------------	------------------	-----------	-----------

ESKU166e8d37-ed0f-48d2-93dc-ff06c33c0c13



ZERBITZUA	DE MUSICA		
1. zikloa	1º ciclo	201,55	208,10
2. zikloa	2º ciclo	597,95	617,40
2. zikloa b*	2º ciclo b*	398,83	411,80
3. zikloa	3º ciclo	722,61	746,10
3. zikloa b*	3º ciclo b*	500,68	516,95
4. zikloa a) musika taldea	4º ciclo. a) conjunto musical	100,79	104,05
4. zikloa b) instrumentua + m. taldea	4º ciclo. b) instrumento + c. musical	398,83	411,80
Ikasle erreforzuak	Alumnado con refuerzo		
Ikasgai teorikoak	Asignaturas teóricas	923,10	953,10
Bigarren instrumentua	Segundo instrumento	201,55	208,10
		201,55	208,10

HIRUGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.7 eranskina (kultur tailerrak) aldatzea:

- a) Ez ohiko ikastaroak sartzea: 4euro/orduko. Ez ohiko ikastaroetan, ikastaroa hasi eta hurrengo 15 egunetan kobratuko da.
- b) Ordainketa epeak aldatzea: *Tarifa osoa bi zatitan:*
1. kuota matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin: %50. Ordainketa epemuga: azaroaren 15tik 30era.
 2. kuota: %50. Ordainketa epemuga: otsailaren 15tik 28ra.
- 5.2.- Urtariletik ekainera: *Tarifa osoaren %75. Ordainketa epemuga: otsailaren 15tik 28ra.*
- 5.3.- Martxotik ekainera: *Tarifa osoaren %50". Ordainketa epemuga: maiatzaren 15etik 30era"*



- c) Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epea urtarrilaren 15ra luzatzea.
- d) Egoera ekonomikoarengatik dagoen prezio murrizketan, Tolosa erroldatuta egotearen baldintza kentzea.
- e) Prezio publikoak %3,25 igotzea:

	2023-2024	2024-2025
Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak	206,92	213,65
Eskulanak. 6-14 urte bitartekoak	152,24	157,20
Zeramika ikastaroa urteko	206,92	213,65
Antzerki ikasturtea	184,41	190,40
Argazkigintza (100 ordu)	248,73	256,80
Argazkigintza (80 ordu)	198,99	205,45
Argazkigintza (60 ordu)	149,24	154,10
Balleta	157,60	162,70
Baleta aurreratua	215,50	222,50
Balleta puntak	58,97	60,90
Dantza garaikidea	215,50	222,50
Ehoziriak eta patchwork	206,92	213,65

LAUGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.3 eranskina (Azoka bereziak) aldatzea:

Ondorengo aplikazio arauak eta prezio publikoak onartzea:

1.- Azoka berezietan jan-edanen prezio publikoa ordaindu behar da dagokion otorduaren edota ekimenaren baitan.



2.- Prezio publiko horien sortzapena txartela erosten den momentuan bertan gertatzen da.

3.- Dagokion zenbaketakoa ez da inondik inora itzuliko.

Pintxoak	2 €
Dastaketak	8 €
Ura: botila txikia	2 €
Ura: botila handia	3 €
Sagardoa: txotxa	2 €
Sagardoa: botila	7 €
Ardoa: kopa	2 €
Ardoa: botila	10 €

BOSGARRENA.- Osoko Bilkurak Ordenantza honetako prezio publikoen igoerak onartu ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean

SEIGARRENA.- Ordenantza honetako gainerako aldaketak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.artikuluari xedatutakoarekin bat etorrita, hasierako onarpena jaso ondoren Ordenantza hau jendaurrean jarriko da ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.



Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu dute prezio publiko batzuen aldaketa.

9. ONARTZEA PREZIO PUBLIKO BERRIAK SORTZEA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

BAKARRA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“LEHENA.- 1989ko irailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak prezio publikoen ordenantza onartu zuela.

BIGARRENA.- Kultura, Jaiak eta Gazteria sailak ondorengo eranskinak sortzea proposatu duela:

- **3.1.11. Gazte ikastaroak**

Tolosako Udalaren Ordenantzetan zehaztu gabe aurkitzen da Tolosako udaleko Gazte Ikastaroen prezio publikoa, eta baita horiek aplikatzeko arauak ere. Hori erregulatzea proposatzen da:



APLIKAZIO ARAUAK

- 1.- Tolosako Udalak hainbat Gazte Ikastaro antolatzen ditu 16-35 urte bitarteko gazteentzat.
- 2.- Izen emate epea martxan jartzen da, eta leku kopurua baino izen emate eskaera gehiago baleude, zozketa bidez esleitzen dira plazak.
- 3.- Ikastaroan izena emateko derrigorrezkoa da Tolosako udalarekin zorrik ez izatea.
- 4.- Ordainketa epea urriaren 1etik 30 bitarte izango da.
- 5.- Ordainketa guztiak helbideratuta egongo dira.
- 6.- Behin ikastaroa hasita, ez da bajarik onartu eta ez da dirurik itzuliko.
- 7.- Ordaindu beharreko kopurua:

Ikastaroko	20 €
------------	------

- **3.1.12. Auzolandegiak**

Tolosako Udalak auzolandegi itxiak antolatu ditu eta horien prezio publikoak onartu behar dira, baita aplikatzeko arauak ere.

APLIKAZIO ARAUAK

- 1.- Auzolandegi itxiak 15 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, eta aste bateko iraupena duen egonaldia eskaintzen da.
- 2.- Izen emate epea martxan jartzen da, eta leku kopurua baino izen emate eskaera gehiago baleude, zozketa bidez esleitzen dira plazak.
- 3.- Ikastaroan izena emateko derrigorrezkoa da Tolosako udalarekin zorrik ez izatea.



4.- Ordainketa epea ekainaren 17tik 28 bitarte izango da.

5.- Ordainketa guztiak helbideratuta egongo dira.

6.- Behin auzolandegia hasita, ez da bajarik onartu eta ez da dirurik itzuliko.

7.- Ordaindu beharreko kopurua:

Auzolandegia	120 €
--------------	-------

• **3.1.7. Jabetza eskola**

Udalaren esku dago maila pertsonalean zein kolektiboan, emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak indartzeko eta gizarte bidezkoagoa lortzeko jarduerak antolatzea. Jarduera horiei dagokien prezio publikoak erregulatzea proposatzen da:

JARDUERA-ILDOAK	LÍNEAS DE ACTUACIÓN	TARIFA 2024
Arte bidezko adierazpena eta sormena	Expresión artística y creatividad	0,90€ orduko
Auto-zaintza eta osasuna	Autocuidado y salud	0,90€ orduko
Komunikazioa	Comunicación	0,90€ orduko
Aldarrikapen feministak	Reivindicaciones feministas	0,90€ orduko
Identitatea eta subjektibotasuna	Identidad y subjetividad	0,90€ orduko
Kulturartekotasuna	Interculturalidad	0,90€ orduko

APLIKAZIO ARAUAK



1.- Aplikazio eremua.

Tolosako Udalak maila pertsonalean zein kolektiboan, emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak indartzeko eta gizarte bidezkoagoa lortzeko jarduerak antolatzen ditu.

2.- Izen emate prozesua.

2.1. Bi denboraldi bereizten dira jabetza eskolan, udazkena-negua eta udaberria. Denboraldi bakoitza hastean, ikastaroetan izena emateko prozedura, eta epealdia Udalaren weborrian argitaratuko dira.

2.2. Izen ematea Internet bidez honako helbidean:

<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jabetze-eskola>. Matrikulazioarekin zailtasunak dituzten pertsonak Andragorara hurbil daitezke eta beharrezko laguntza jasoko dute.

2.3. Izen ematea, jarduera hasi baino bi egun lehenago arte egingo da.

2.4. Ikastaroetako eta lantegietako plazak iristeko hurrenkeraren arabera banatuko dira.

2.5. Denboraldi bakoitzean errepikakorrak diren jardueretan, alde zuzenetik parte ez duten pertsonak izango dute lehentasuna.

3.- Ordainketa

3.1. Izen emateak balio izateko, ikastaroetan tokia lortu duten pertsonak ikastaroaren prezioa ordaindu beharko dute.

3.2. Ordainketa epemuga ikastaroa hasi baino bi egun lehenago izango da.

3.3. Epe hori igaro ondoren ez bada ordainketarik egin, baja emango zaio eskaera horri eta tokia libre geratuko da. Itxaron zerrenda dauden kasuetan, hurrengo pertsonak hartuko du toki hori.

4.- Prezio jaitsiera

4.1. Eskaera egiten dutenei, Tolosako udalarekin zorrik ez badute eta Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %100 murriztuko zaie prezio publikoa.

5.- Matrikula bertan behera uztea eta matrikula etetea

5.1. Matrikulan ordaindutakoa ez da inondik eta inora itzuliko, baldin eta matrikula bertan behera uzteko eskaera ez bada egiten gutxienez ikastaroa hasi baino 7 egun natural lehenago.

5.2. Izena eman dutenek ikastarora bertaratu ezinean, jarduera hasi baino lehen baja



eman behar da e-mailez. Hala, beste batzuek hartu ahalko dute lekua.

- 5.3. Irakaslea aldatu dela-eta ez da matrikularen dirua itzuliko.
- 5.4. Ezinbestean ikastaroren bat eteten bada, bilatuko da hura nola berreskuratu. Ez bada egiten, dirua itzuliko da.
- 5.5. Ikastaroak egin ahal izateko, baliozko izen-emateen kopuru bat izan beharko dute gutxienez, ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago. Kopuru hori aldatu ahal izango da ikastaro-motaren arabera. Gutxienerako pertsona-kopurua egongo ez balitz ikastaroa egiteko, bertan behera geratuko litzateke, eta dirua itzuliko litzateke izena eman dutenei.
- 5.6. Eskolen kalitatea zaintzeko, gehienera egon daitekeen parte hartzaile kopurua finkatuko da, ikastaroaren gaiaren arabera.”

KONTUAN HARTURIK

- Tasa eta Prezio Publikoek buruzko urtarilaren 11ko 2/1990 Foru arauan honakoa xedatzen da:
Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:
 - Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak.
 - Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.
- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta ondorengo aldaketa proposatu du:

- Ondorengo baldintza kentzea: ikastaroetan izena emateko derrigorrezkoa da Tolosako udalarekin zorrik ez izatea.



Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Jose M^a Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin

Abstentzioak: Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Prezio publikoen 3.1.11 eranskina (Gazte ikastaroak) sortzea:

APLIKAZIO ARAUAK

- 1.- Tolosako Udalak hainbat Gazte Ikastaro antolatzen ditu 16-35 urte bitarteko gazteentzat.
- 2.- Izen emate epea martxan jartzen da, eta leku kopurua baino izen emate eskaera gehiago baleude, zozketa bidez esleitzen dira plazak.
- 3.- Ordainketa epea urriaren 1etik 30 bitarte izango da.
- 4.- Ordainketa guztiak helbideratuta egongo dira.
- 5.- Behin ikastaroa hasita, ez da bajarik onartu eta ez da dirurik itzuliko.
- 6.- Ordaindu beharreko kopurua:

Ikastaroko	20 €
------------	------

BIGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.12 eranskina (Auzolandegiak) sortzea:

APLIKAZIO ARAUAK

- 1.- Auzolandegi itxiak 15 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, eta aste bateko iraupena duen egonaldia eskaintzen da.
- 2.- Izen emate epea martxan jartzen da, eta leku kopurua baino izen emate eskaera gehiago baleude, zozketa bidez esleitzen dira plazak.
- 3.- Ordainketa epea ekainaren 17tik 28 bitarte izango da.
- 4.- Ordainketa guztiak helbideratuta egongo dira.
- 5.- Behin auzolandegia hasita, ez da bajarik onartu eta ez da dirurik itzuliko.



6.- Ordaindu beharreko kopurua:

Auzolandegia	120 €
--------------	-------

HIRUGARRENA.- Prezio publikoen 3.1.13 eranskina (Jabetze eskola) sortzea:

JARDUERA-ILDOAK	LÍNEAS DE ACTUACIÓN	TARIFA 2024
Arte bidezko adierazpena eta sormena	Expresión artística y creatividad	0,90€ orduko
Auto-zaintza eta osasuna	Autocuidado y salud	0,90€ orduko
Komunikazioa	Comunicación	0,90€ orduko
Aldarrikapen feministak	Reivindicaciones feministas	0,90€ orduko
Identitatea eta subjektibotasuna	Identidad y subjetividad	0,90€ orduko
Kulturartekotasuna	Interculturalidad	0,90€ orduko

APLIKAZIO ARAUAK

1.- Aplikazio eremua.

Tolosako Udalak maila pertsonalean zein kolektiboan, emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak indartzeko eta gizarte bidezkoagoa lortzeko jarduerak antolatzen ditu.

2.- Izen emate prozesua.

2.1. Bi denboraldi bereizten dira jabetza eskolan, udazkena-negua eta udaberria. Denboraldi bakoitza hastean, ikastaroetan izena emateko prozedura, eta epealdia Udalaren web orrian argitaratuko dira.

2.2. Izen ematea Internet bidez honako helbidean:

<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jabetze-eskola>. Matrikulazioarekin zailtasunak dituzten pertsonak Andragorara hurbil daitezke eta beharrezko laguntza jasoko dute.

2.3. Izen ematea, jarduera hasi baino bi egun lehenago arte egingo da.

2.4. Ikastaroetako eta lantegietako plazak iristeko hurrenkeraren arabera banatuko dira.

2.5. Denboraldi bakoitzean errepikakorrek diren jardueretan, aldeztatik parte ez duten pertsonak izango dute lehentasuna.

3.- Ordainketa



3.1. Izen emateak balio izateko, ikastaroetan tokia lortu duten pertsonak ikastaroaren prezioa ordaindu beharko dute.

3.2. Ordainketa epemuga ikastaroa hasi baino bi egun lehenago izango da.

3.3. Epe hori igaro ondoren ez bada ordainketarik egin, baja emango zaio eskaera horri eta tokia libre geratuko da. Itxaron zerrenda dauden kasuetan, hurrengo pertsonak hartuko du toki hori.

4.- Prezio jaitsiera

4.1. Eskaera egiten dutenei, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %100 murriztuko zaie prezio publikoa.

5.- Matrikula bertan behera uztea eta matrikula etetea

5.1. Matrikulan ordaindutakoa ez da inondik eta inora itzuliko, baldin eta matrikula bertan behera uzteko eskaera ez bada egiten gutxienez ikastaroa hasi baino 7 egun natural lehenago.

5.2. Izena eman dutenek ikastarora bertaratu ezinean, jarduera hasi baino lehen baja eman behar da e-mailez. Hala, beste batzuek hartu ahalko dute lekua.

5.3. Irakaslea aldatu dela-eta ez da matrikularen dirua itzuliko.

5.4. Ezinbestean ikastaroren bat eteten bada, bilatuko da hura nola berreskuratu. Ez bada egiten, dirua itzuliko da.

5.5. Ikastaroak egin ahal izateko, baliozko izen-emateen kopuru bat izan beharko dute gutxienez, ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago. Kopuru hori aldatu ahal izango da ikastaro-motaren arabera. Gutxienerako pertsona-kopurua egongo ez balitz ikastaroa egiteko, bertan behera geratuko litzateke, eta dirua itzuliko litzateke izena eman dutenei.

5.6. Eskolen kalitatea zaintzeko, gehienera egon daitekeen parte hartzaile kopurua finkatuko da, ikastaroaren gaiaren arabera.

LAUGARRENA.- Eranskin horien hasierako onarpena ematea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.artikuluaren xedatutakoarekin bat etorrira, hasierako onarpena jaso ondoren Ordenantza hau jendaurrean jarriko da ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du prezio publiko berriak sortzea.

10.HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2024KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO 1-2024 PROPOSAMENARI.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena

IKUSIRIK

2024ko maiatzaren 16an, 2024ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamena egin zen.

2024ko maiatzaren 21ean, aipatutako eranskinean aldaketa berri bat eransteko beharra identifikatu da. Hain zuzen ere, TOLOSA C.F. elkartearen 2022/2023 urteko dirulaguntza izendunaren 50.000,00 euroko bigarren zatia ordaindu ahal izateko, 2024 urteko aurrekontuan dirulaguntza izendun moduan agertu behar du aipatutako kopuruak.

Aipatutako aldaketa kontuan edukita, ondorengoak dira 2024 urteko dirulaguntzen eranskinean egitea proposatzen diren aldaketak:

Partida	Onuraduna	Helburua	Aldaketa	Mota
1100.471.01.431.00	ENPRESAK	Lokalaren alokairuak (EKIN)	75.000,00	lehiarik gabeko norgehiagoka



0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialditako laguntzak (GLL)	50.000,00	legea/akordioa
0800.481.17.334.10	COMPARSA DE GIGANTES Y CABEZUDOS	Erraldoien eta buruhaundien irteerak eta mantenua	9.050,00	izenduna
1000.481.04.341.00	IKASTETXEAK	Igeriketa kanpaina	15.000,00	lehia
1100.481.10.431.10	BABARRUN KOFRADIA	Ohiko jarduera	5.000,00	izenduna
1000.481.10.341.00	TOLOSA C.F.	Berazubiko hitzarmena	50.000,00	izenduna

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu da, Tolosa C.F. dirulaguntza izendunari dagokion aldaketa erantsita.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko bozkak: Kristina Pelaez Errazkin, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Onartzea Tolosa C.F. dirulaguntzari dagokion aldaketa aurkezturiko irizpenari erantsia.

BIGARRENA.- Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskineko aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin-betiko aurrekontua	Mota
---------	-----------	----------	--------------------------	------



			2024	
1100.471.01.431.00	ENPRESAK	Lokalaren alokairuak (EKIN)	161.000,00	lehiarik gabeko norgehiagoka
0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialditako laguntzak (GLL)	310.000,00	legea/akordioa
0800.481.17.334.10	COMPARRA DE GIGANTES Y CABEZUDOS	Erraldioen eta buruhaundien irteerak eta mantenua	44.950,00	izenduna
1000.481.04.341.00	IKASTETXEAK	Igeriketa kanpaina	31.000,00	lehia
1100.481.10.431.10	BABARRUN KOFRADIA	Ohiko jarduera	10.000,00	izenduna
1000.481.10.341.00	TOLOSA C.F.	Berazubiko hitzarmena	155.000,00	izenduna

HIRUGARRENA.- 2024ko dirulaguntzen eranskinetako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunez, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena ematea 2024ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 1-2024 proposamenari.

11.TOLOSAKO HAPOKO ONDAREAREN UDAL-KATALOGOAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENAREN ONDOTIK AURKEZTUTAKO BI ALEGAZIOAK ERANTZUTEA, JASOTAKO TXOSTEN SEKTORIALAK AZTERTZEA ETA ALDAKETA HORI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko maiatzaren 22ko irizpena



ERREKURTSOGILEAK ORIA KALEA 6 ZENBAKIKO JABEKIDE ERKIDEGOA
:
SAN FRANTZISKO 39-39A-41-41A ZENBAKIKO
JABEKIDEEN ERKIDEGOAK

ORDEZKARIA: ADMINISTRACIONES ARAMBURU SL ENPRESA
ORDEZKARI LEGALA: ENEKO ARAMBURU
BARRENECHEA.

SARRERA-DATAK/ 2024/04/11 (SARRERA ZK. 2024-4977)
ZENBAKIAK: 2024/04/11 (SARRERA ZK. 2024-4978)

ESPEDIENTEA: 2023H1090001

I.- AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Alkatearen probidentzia	2023/07/03	
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko taulan:	2023/11/13 - 2023/12/13	
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia web orrian eta gardentasun atarian:	2023/11/13	
Egin edota aurkeztutako ekarpenak:	2023/12/11 E.L.G. 2023/12/12 L.G. 2023/12/12 S.L.C. 2023/12/12 A.U.P. 2023/12/12 M.R.C. 2023/12/12 E.B.G. 2023/12/12 M.A.	
Txosten juridikoa, informazio aldiari buruzkoa.	2024/01/09	Zazpi ekarpen aurkeztu dira
Udaleko Idazkariaren ziurtagiria, informazio aldiari buruzkoa.	2024/01/29	Zazpi ekarpen aurkeztu dira
Lurralde Batzorde Informatiboari proposatutako irizpena.	2024/02/16	Hasierako onespena ematea Katalogoaren aldaketari.
Udaleko idazkariaren ziurtagiria Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkuran (2024/02/29) hartutako erabakiaz.	2024/03/07	Hasierako onespena ematea Katalogoaren aldaketari.
Txosten sektorialak eskatzea GFARA eta EJra.	2024/03/08	

ESKU166e8d37-ed0f-48d2-93dc-ff06c33c0c13



Jakinarazpenak:	2024/03/13	
- San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideak.	(irteera zenbakiak: 674, 675, 676)	
- San Frantzisko 39 zenbakiko jabekideak.		
- - Oria kalea 4 zenbakiko jabekideak.		
Oria kalea 6 zenbakiko jabekideak.		
Iragarkia GAOn	2024/03/19 (56 zk.)	
Iragarkia web orrian	2024/03/19	
Iragarkia udaletxeko taulan	2024/03/19 - 2024/05/10	Informazio publikoaren azken eguna: 2024/05/10
Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuko txostena.	2024/04/11	Ondare Historiko-Artistikoaren eta Artxiboen Zerbitzuak egindakoa. Aldekoa, oharrekin.
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena.	2024/04/16	Kultura Ondareari buruzkoa. Aldekoa, gomendioekin.
Informazio publiko aldiari buruzko txostena eta ziurtagiria	2024/05/14	Bi alegazioen aurkezpena jendaurrekoan. Oria kalea 6 zenbakiko jabekide erkidegoa eta San Frantzisko 39-39A-41-41A zenbakiko jabekideen erkidegoak.

II.- AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Administraciones Aramburu SL enpresak, Eneko Aramburu Barrenecheak ordezkaturik, Oria kalea 6 eta San Frantzisko 39-39A-41-41A zenbakietako jabekideen erkidegoak ordezkaturik, aurkeztu dituen bi alegazioak eduki bera dute. Finean, adierazitako alegazio-idatziek hiru eskaera egiten dituzte: << (...)



Primera.- Que se tenga como parte interesada y se proceda a la notificación de toda tramitación y acuerdo del expediente de modificación del catálogo del plan general de ordenación urbana de Tolosa y de cualquier modificación de la ordenación pormenorizada y desarrollo del ámbito sito el edificio "Villa Sagrado Corazón" y edificios colindantes presentes y futuros, interesando previa aprobación municipal la reunión con las partes interesadas y afectadas, como la parte alegante.

Segunda.- Que ni la Protección del edificio de "Villa Sagrado Corazón", ni tampoco su efecto sobre la edificabilidad en el resto del parcelario urbano, no afecte ni en altura, dimensiones o linderos, los edificios existentes, ni la servidumbre de vistas y luces existentes.

Tercera.- Teniendo en cuenta la actual situación precaria de las aceras y viales en dicho ámbito (Trasera San Francisco, Oria, Pedro Tolosa...), se proceda a hacer un planteamiento de reurbanización general de la zona, dentro del ámbito de actuación futuro: Estudio de movilidad definiendo las direcciones de tráfico rodado y zonas de aparcamiento, idoneidad de aceras en cuanto a dimensiones y conservación, medidas preventivas en dicha área en cuanto al tránsito rodado durante los futuros trabajos de edificación, etc.

>>

III.- AZTERKETA TEKNIKO-JURIDIKOA

III.1.- Aurkeztutako alegazioak.

Aurkeztutako alegazioek egiten dituzten hiru eskaerei dagokionez, honakoa adierazi behar da:

- Lehenengo eskaerari dagokionean, aintzat harturik 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 4.2 artikulua, onargarria da espediente honetan Oria kalea 6 eta San Frantzisko 39-39A-41-41A zenbakietako jabekideen erkidegoak interesduntzat hartzea; baita, «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruaren antolamendu xehatuarekin edota bere garapenarekin lotura duten gainontzeko espedienteetan.
- Bigarren eskaerari dagokionez, adierazi behar da espediente honen helburua soilik dela San Frantzisko Pasealekua 37 zenbakian dagoen «Villa Sagrado Corazón» eraikina II. Mailako babesaren D – Udal-intereseko ondasun higiezinaren zerrendan barneratzea eta hori ahalbideratzeko Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoa aldatzea. Hau da, espediente honen objektua adierazitako eraikina babestea besterik ez da; «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun eta zehaztapenetan sartu gabe. Hori dela eta, bigarren eskaera espediente honen xedearekin bat ez datorrenez, ez da aintzat hartzekoa.
- Hirugarren eskaerari erreparatuz, eta kontuan izanik espediente honen helburua zein den, adierazi behar da hirugarren eskaera ere ez dela aintzat hartzekoa.

ESKU166e8d37-ed0f-48d2-93dc-ff06c33c0c13



III.2.- Jasotako txosten sektorialak.

III.2.1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko txostena.

Txostenean adierazten da kontraesan bat antzeman dela aurkeztutako proposamen-dokumentuan, «Villa Sagrado Corazón» eraikina II. Mailako elementu gisa integratzen delako (udal-babeseko ondasun higiezinak) eta, era berean, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzen duen azaroaren 30eko 14/2023 Legearen 1. Artikulua araberako oinarritzko babes-maila duen higiezina dela ezartzen delako. Hori dela eta, adierazitako bi babes-mailak baliokideak ez direnez, argitzeko eskatu da.

Hasierako onespena emateko egindako azterketa tekniko-juridikoa aztertutik, ikusi da adierazitako kontraesana badagoela. Izan ere, *III.6.- KATALOGOAREN ZERRENDAREN ALDAKETAREN EDUKIA* izeneko atalean adierazten da «Villa Sagrado Corazón» eraikina II. Mailako babesaren D-Udal-intereseko ondasun higiezin zerrendan barneratzea proposatzen dela baina, atal berean, aurrerago aipatzen da babes-mailari dagokionez oinarritzko babes-maila duen higiezina izango dela, 14/2023 Legeko 1. Artikulua araberako. Beraz, aspektu hau argitu eta zuzendu beharra dago.

Adierazitako 14/2023 Legeak honakoa finkatzen du:

“1. artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 8. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«8. artikulua.– Babes-mailak.

1.– Euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunak, dagokien babes-mailaren araberako, honelakoak izango dira:

a) Babes berezia duten kultura-ondasunak: babes berezia jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin, higigarri eta immaterial nabarmenenean.

b) Babes ertaina duten kultura-ondasunak: babes ertaina jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin eta higigarri garrantzitsuek.

c) Oinarritzko babesaren duten kultura-ondasunak: oinarritzko babesaren duten kultura-ondasunak izango dira lege honen 2.1 artikuluan aipatutako kultura-balioetakoren bat duten eta udalek une bakoitzean indarrean dauden udalaren hirigintza-plangintzako katalogoetan hala zehazten dituzten kultura-intereseko higiezinak, zaharberritze zientifikoko edo zaharberritze kontserbatzaileko jarduketak merezi dituztelako.

Nolanahi ere, oinarritzko babeseko kultura-ondasunen izaera galduko dute babes berezi eta ertainekotzat jo diren edo jotzen diren eta, beraz, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden kultura-ondasunek.

2.– Aurreko sailkapena udal-babeseko kultura-ondasunen sailkapenarekin osatuko da. Azken horiek hirigintza-plangintzan eta udal-katalogoetan zehaztuko dira, eta tresna horietan ezarritako babes-araubidearen mende egongo dira. (...)»”.

14/2023 Legeak araututako babes-mailen araberako eta, bereziki, kontuan izanik udal-babeseko kultura-ondasunen sailkapena udal-katalogoetan zehazten direla,



ondorioztatu behar da udaleko Ondarearen Udal-Katalogoan II. Mailako babesaren duten D-Udal-intereseko ondasun higiezinaren zerrendan barneratuak dauden udal-babeseko kultura-ondasunen sailkapenaren baitan daudela eta, ez, oinarritzko babesaren duten kultura-ondasunen sailkapenean; azken horren barruan leudeke Ondarearen Udal-Katalogoko I. Mailan barneratutakoak.

Hori horrela, argitu eta zuzendu behar da Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketaren xedea dela «Villa Sagrado Corazón» eraikinari udal-babesa ematea, ez oinarritzko-babesa; ondorioz, indarrean dagoen katalogoaren babes-araubideak ezarritakoari jarraiki, eraikin honetan esku-hartzeko, Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan aurreikusitako “eraberritzeko” edo “berriztatze” esku-hartzeak baimendu ahal izango dira.

Bestalde, aipatzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko txostenean ere gomendatzen dela «Villa Sagrado Corazón» eraikinaren fitxa bat egitea. Honen aurrean, adierazi behar da udalaren asmoa dela Ondarearen Udal-katalogoa osatzeko prozedura berri bat hastea hiriguneko bizitegi-arkitektura historikoko eraikinen tipologiarekin parekatutako eraikinak barneratzeko. Hori horrela, eraikin bakoitzarentzat dagokion fitxa osatuko da; baita, «Villa Sagrado Corazón» eraikinarena ere.

III.2.2.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena.

Txostena ikusirik, nabarmentzekoa da Euskal Kultura Ondarearen Zentroak egiaztatu duela, babestu beharreko ondasunei dagokionez, «Villa Sagrado Corazón» eraikinak babes ertaina izateko proposamena duela. Eta, hortaz, udal katalogoan sartzea eta babestea, ondarearen ikuspegitik, nabarmendu beharreko ekimena dela eta oso positiboki baloratzen dela proposamena.

Horretaz gain, GFAaren txostenaren ildo beretik, txostenean adierazten da ez dela argi geratzen zein den udalaren proposamena, hau da, «Villa Sagrado Corazón» eraikinari oinarritzko babes ematea edota udal-mailako babes ematea eta, beraz, zein den dagokion esku-hartzea.

Hori horrela, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak gomendatzen du zaharberritze kontserbatzaile erako esku-hartzea egitea; erdi mailako babesaren proposamena duten monumentuetan aplikagarri dena. Beraz, udal sailkapenari lotuta, adierazten da egokiagoa dela udalaz gairikiko intereseko ondasunentzat (I. maila) ezarritako irizpideak, zaharberritze zientifikoa edo zaharberritze kontserbatzaile motako esku-hartzeak.

Aurreko puntuan adierazi bezala, beharrezkoa da azpimarratzea une honetan udalaren asmoa dela Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketaren bitartez «Villa Sagrado Corazón» eraikinari udal-babesa ematea. Beraz, kontuan hartzekoa eta baloratzekoa bada ere Euskal Kultura Ondarearen Zentroak egindako gomendioa, ez da egokia ikusten babes-maila hori baino gehiago ematea une honetan. Dena den, aurretik adierazi den moduan, Udalak Ondarearen Udal-katalogoa osatzeko prozedura hasteko asmoa du hiriguneko bizitegi-arkitektura historikoko eraikinen tipologiarekin parekatutako eraikinak



barneratzeko. Beraz, prozesu horretan aztertu eta arrazoituko da «Villa Sagrado Corazón» eraikinak beste babes-maila bat merezi duen.

III.3.- Behin betiko onespina ematea.

Kontuan izanik egindako zuzenketa kontraesan bat zuzentzeko izan dela eta, beraz, ez dela funtsezkoa; egokia ikusten da behin betiko onespina ematea Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketari.

Tolosako udaleko Lurralde Batzordeak, 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi eta Aitor Agirresarobe Murgi.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENENGOA.- ZATI BATEAN ONARTZEA Administraciones Aramburu SL enpresak, Eneko Aramburu Barrenecheak ordezkaturata, Oria kalea 6 eta San Frantzisko 39-39A-41-41A zenbakietako jabekideen erkidegoak ordezkaturaz, Tolosako Udalean 2024ko apirilaren 11n aurkeztu dituen bi alegazioak. Zehazki, onartzen da espediente honetan Oria kalea 6 eta San Frantzisko 39-39A-41-41A zenbakietako jabekideen erkidegoak interesduntzat hartzea eta, baita, «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruaren antolamendu xehatuarekin edota bere garapenarekin lotura duten gainontzeko espedienteetan ere.

BIGARRENA.- BEHIN BETIKO ONESPINA EMATEA Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketari. Argituz eta zuzenduz Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketaren xedea dela «Villa Sagrado Corazón» eraikinari udal-babesa ematea, ez oinarritzko-babesa; ondorioz, indarrean dagoen katalogoaren babes-araubideak ezarritakoari jarraiki, “eraberritze” motako esku-hartzeen erregimena dagokiola.

Beraz, behin betikoz onesten den aldaketa honakoa da: **II. Mailako babesak duden D.-Udal-intereseko ondasun higiezin zerrendan barneratzea San Frantzisko Pasealekua 37an dagoen «Villa Sagrado Corazon» eraikina.**

ESKU166e8d37-ed0f-48d2-93dc-ff06c33c0c13



INDARREAN DAGOEN ZERRENDA:	ALDAKETAREKIN PROPOSATZEN DEN ZERRENDA:
<p>D.-Udal-intereseko ondasun higiezinak. 35.- Jesusen zerbitzarien komentuko kapera. 36.- Arrameleko San Juan ermita. 37.- San Blas ermita. 38.- Elizetxe baserria. 39.- Arretxe baserria. 40.- Nagusi Etxe baserria. 41.- Larranetako Borda baserria. 42.- Amartz Haundi baserria. 43.- Urkizu Goikoa baserria. 44.- Esola baserria. 45.- Illaramendi Goena baserria. 46.- Berrano baserria. 47.- Pikuaga baserria. 48.- Azurzia errota. 49.- Osarain Goikoa errota. 50.- Osarain Behekoa errota. 51.- "La Guadalupe" paper-fabrika. 52.- Trenbideko langilearen etxea. 53.- Orratz-zainaren etxea. 54.- Aranburu jauregia. 55.- San Jose ikastetxea. 56.- Telefonica enpresaren eraikina. Nafarroa etorbidea, Laskorain kalearekin. 57.- Bedaioko eliza.</p>	<p>D.- Udal-intereseko ondasun higiezinak. 35.- Jesusen zerbitzarien komentuko kapera. 36.- Arrameleko San Juan ermita. 37.- San Blas ermita. 38.- Elizetxe baserria. 39.- Arretxe baserria. 40.- Nagusi Etxe baserria. 41.- Larranetako Borda baserria. 42.- Amartz Haundi baserria. 43.- Urkizu Goikoa baserria. 44.- Esola baserria. 45.- Illaramendi Goena baserria. 46.- Berrano baserria. 47.- Pikuaga baserria. 48.- Azurzia errota. 49.- Osarain Goikoa errota. 50.- Osarain Behekoa errota. 51.- "La Guadalupe" paper-fabrika. 52.- Trenbideko langilearen etxea. 53.- Orratz-zainaren etxea. 54.- Aranburu jauregia. 55.- San Jose ikastetxea. 56.- Telefonica enpresaren eraikina. Nafarroa etorbidea, Laskorain kalearekin. 57.- Bedaioko eliza. 96.- Villa Sagrado Corazón</p>

HIRUGARRENA.- Behin betiko erabakia, Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketaren testu osoarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-oholean zein Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea denek jakin dezaten, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua araberaz.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea alegazio-jartzaileari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.



Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udaltzako, gehiengoz, onartu du Tolosako HAPOk ondarearen udal-katalogoaren aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztutako bi alegazioak erantzutea, jasotako txosten sektorialak aztertzea eta aldaketa hori behin betiko onspena ematea.

12.OARC/KEAO-K EMANDAKO EBAZPENAREN ONDORIOZ, TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETARAKO ZERBITZU-KONTRATUAREN LIZITAZIOA BERTAN BEHERA UZTEA.

Gaiaren premiatasuna kontuan izanik eta proposamenak batzordearen irizpena ez duenez, bozketara jarri da puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Udaltzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udaltzako, aho batez, onartu du:

Lehena.- Berrestea puntu hau bikurako gai-zerrendan sartzea.

Bigarrena.- Proposamen honek informazio-batzordearen irizpena ez duenez, erabaki honen berri Antolakuntza Lan Esparruko informazio Batzorde Iraunkorrak egiten duen lehen bileran erabakiaren berri ematea.

IKUSIRIK

LEHENA.- 2020. urtean Udalak AGEM CONSULTORES Y AUDITORES, S.L. enpresari azterketa juridiko-ekonomikoa eskatu zion Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa egiteko aukera desberdinak planteatuz: alde batetik, kudeaketa zuzena planteatu zen eta bestetik, berriz, zeharkako kudeaketa. Azterketa horrek zeharkako kudeaketa



eraginkorragoa zela adiera zi zuen. Horiek horrela, 2021ean martxan jarri zen Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala emateko zerbitzu-emakida kontratuaren lizitazioa.

BIGARRENA.- Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten beraien eskaintzak. Behin kontratazio-jardunbidea guztia legearen arabera garatu ondoren, 2022ko otsailaren 23an egindako Tolosako Udaleko osoko-bilkurak Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala emateko zerbitzu-emakida kontratua adjudikatu zion BPXPORT XXI, S.L. enpresari. Kontratazioaren errekurso berezia zela eta, kontratuaren formalizazio ez zen eman 2022ko irailaren 1a arte.

HIRUGARRENA.- 2023ko martxoaren 16an Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuan lan egiten duten BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresako langileek 10 eguneko greba hasi zuten; batetik, soldataren hobekuntza eta eguneratzea eskatuz, eta bestetik, berriz, gainerako lan baldintzen erregularizazioa hobekuntzak eskatuz, urte hauetan guztietan erosahalmena galdu izanaren argudioarekin. Egun horietan Usabal eta Berazubi eraikinetan eskaintzen ziren kirol-zerbitzuak bertan behera geratu ziren; halaber, asteburuetan Berazubi estadioa irekitzeari utzi zioten. 2023ko maiatzaren 8an langileek bigarren greba egitea adostu zuten, kasu honetan mugagabea. Lehen greban Usabal eta Berazubi eraikinetan eskaintzen ziren zerbitzu guztiak etenda egon baziren ere, bigarren greba mugagabe horretan Usabal kiroldegia egon zen guztiz itxirik. Aldiz, Berazubi estadioa astean zehar irekita egon bazen ere, asteburuetan itxita egon zen. Denbora guzti horretan zehar, Tolosako Udala bitartekari lanak egiten saiatu zen, bi aldeak eskatuta gatazkari konponbide bat bilatzeko asmoz eta zerbitzuak berriro bere osotasunean zabaltzeko. Saiakera horiek guztiek ez zuten emaitzik eman eta instalazioak itxita jarraitzen zuten.

LAUGARRENA.- Tolosako Udaleko Kirolak Saileko teknikariak 2023ko azaroaren 6an igorritako txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbide berriari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: administrazio baldintza partikularren plegua, preskripzio tekniko partikularren plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

BOSGARRENA.- Esan bezala, kontratazio espediente (2023SABI0011) hau, 2021CSER0002 espedientetik eratorritako kontratua suntsiaraztearen ondorioa da, kontratuaren betebeharrak nagusia modu larrian ez betetzeagatik kirol instalazioak hainbat hilabetez itxita egoteagatik. Beraz, SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua zenez eta interes publikoko arazoengatik esleipena azkartu behar zenez, kontratazio organoak presakotzat jo zuen.



SEIGARRENA.- 2023ko azaroaren 14an Udalbatzak onartu zuen, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketarako zerbitzu kontratuaren lizitazioa presakotzat jotzea, kontratazio espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea. 2023ko azaroaren 16an argitaratu zen iragarkia Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta 2023ko azaroaren 17an Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (00700615-2023Número de la edición del DO S: 222/2023).

ZAZPIGARRENA.- Behin lizitazioa argitaratuta, 2023ko abenduaren 1ean sarrera izan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazioaren Organoan (OARC) AGUA Y JARDÍN, S.L. enpresak aurkeztutako kontratazioari buruzko errekurtsoa. Era berean 2023ko abenduaren 11an sarrera izan zuen ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE EMPRESARIOS DE SERVICIOS DEPORTIVOS A LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS (AEESDAP) elkarteak aurkeztutako errekurtsoa. Udalak, legearen arabera, espedientea eta alegazio-txostenak helarazi zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazioaren Organora.

ZORTZIGARRENA.- 2024ko maiatzaren 24an Udalean jaso ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazioaren Organoaren titularraren (OARC) EB 2023/245 eta EB 2023/249 Ebazpenak. Horietan partzialki onartzen zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazioaren Organoak (OARC) GUA Y JARDÍN, S.L. enpresak eta ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE EMPRESARIOS DE SERVICIOS DEPORTIVOS A LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS (AEESDAP) elkarteak aurkeztutako errekurtsoak; horren ondorioz, **OARCe** bertan behera uzten du lizitazioa.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuaren kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.



2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 4.126.548,80 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino altuagoa da eta Udaleko osoko bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.

BIGARRENA.- 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak 126. artikuluan zehazten du informazio-batzordeen irizpenak nahitaezkoak direla eta ez lotesleak. Hala ere, premiazko kasuetan, Osoko Bilkurak edo Gobernu Batzarrak informazio-batzordeak ebatzi gabeko gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango ditu, baina, kasu horietan, hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio informazio-batzordeari, egiten den lehen bilkuran. Horrela, proposamen honek informazio-batzordearen irizpena izan ez duenez, **nahitaezkoa izango da hartzen den erabakiaren berri Antolakuntza Batzorde Informatiboari ematea, egiten den lehen bilkuran.**

Aurreko guztia aintzat harturik, honakoa da egiten dudana

PROPOSAMENA

LEHENA.- OARC/KEAO-K emandako ebazpenaren ondorioz, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketarako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa bertan behera uztea eta legearen arabera argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian.

BIGARRENA.- 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak 126. artikuluan zehazten duenaren arabera, hartutako erabakiaren berri Antolakuntza Batzorde Informatiboari ematea, egiten den lehen bilkuran.

HIRUGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea Kirolak Sailari, Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du OARC/KEAO-K emandako ebazpenaren ondorioz, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketarako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa bertan behera uztea.

13.2024/02 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU TXERTAKETEN MODALITATEKOA.

2024/02 kreditu txertaketen modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da.

2024/1192 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, hain zuzen ere 02/2024 kreditu aldaketari dagokiona, kreditu txertaketen modalitatekoa, eta 2024AUKA0003 zenbakiduna.

Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 32. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 32.6 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT



LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapitulua ak	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	315.439,16
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.325,00
6	INBERTSIO ERREALAK	1.366.534,35
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	140.000,00
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		1.824.298,51

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERA K)	FINANTZA AKTIBOAK	1.824.298,51
FINANTZAKETA GUZTIRA		1.824.298,51

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

HIRUGARRENA.- Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da aurrekontua likidatu arte.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA
Angel Martinez de Rituerto Arregui

UDAL IDAZKARIA
Begoña Garmendia Vazquez



Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**14.2024/04 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU
GAHIKUNTZAREN MODALITATEKOA.**

2024/04 kreditu gahikuntzaren modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da.

2024/1191 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 4/2024 kreditu aldaketa.

Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:



GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	28.556,89
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		28.556,89

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	28.556,89
FINANTZAKETA GUZTIRA		28.556,89

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA
Angel Martinez de Rituerto Arregui

UDAL IDAZKARIA
Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



15.UDAL HONEN 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

2024/1148 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaile akzidentalak osatu duen txostena, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehen. - Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n:		24.506.529,39
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		4.851.944,60
Aurrekontuko zordunak :	4.713.532,21	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	138.412,39	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		4.830.636,15
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	2.878.493,31	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.952.142,84	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		24.527.837,84
5.- Saldo kobragaitzak:		2.436.737,53
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		34.258,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		22.056.842,31



AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	765.652,78
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-100.773,76
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	5.806.223,53
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-34.258,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	6.436.844,55

KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, guztira	11.699.657,25
----------------------------	---------------

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

16. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:25ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IPLE0008-2024-05-30 Ohiko osoko bilkura akta/2024-05-30 Ohiko osoko